

ELKARRIZKETA: JORDI SOLE • ESPERIENTZIA: OH HAPPY DAY! •  
EKARPENAK: BIKOTEKA IRAKURTZEN • GALDEIDAZUE: GARIKOITZ LOPEZ  
DE MUNAIN • D'ELIKATUZ • ATZEKO ATETIK: MATXALEN BILBAO

**hh**  
hik hasi

**158**

4 EURO • 2011KO MAIATZA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**GAIA**

**Nafarroako landa eremuko eskolak**  
Txikitasunak elkaturik

+8 urte

## NOBIO BAT NIRE AMARENTZAT

Castillo Suarez • Inaki G. Holgado



Jagoba botika baten gainean bizi da, amarekin. Botikaria baitu ama. Baina amak arazo bat du, Jagobaren iritzian: ez dauka nobiorik. Hortaz, amarentzako nobio bila hasiko da han-hemen.

+8 urte

## LETRAK ELURRETAN

Antton Kazabon • Jokin Larrea



Denis aitonarekin bizi da mendian, gustura asko gainera. Baina aitonak badu kezka bat: Denis ez da eskolara joatean, baserritik urruti baitago eta horregatik, oraindik ez daki ez idazten ez irakurtzen.

+8 urte

## ZORIONAK, MARKO

Eneko Bidegain • Marko Armspach



Karramarro ume bat da Marko, uretan eta bere lagunekin (Oskar, Txarli, Mimi, Rita...) jolasean ibili nahi duena. Hala ere, non-nahi daude arriskuak bera bezalako karramarro ausart baina burugabe batentzat...

# HELDU LITERATURARI

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

elkar

+8 urte

## EZIN DUT, ETA ZER?

Uxue Alberdi • Jokin Mitxelena



Aita beti esan eta esan ari zaio alabari super-neska bat dela. Saiatu da super-neska bat izaten, aitari kontra ez egiteagatik baina azkenean, bere ausardia guztia bildu eta ausartuko da aitari esaten ez dela super-neska bat.

+5 urte

## JOSETXO HARGINA

Mixel Murua • Antton Olariaga



Bazen gizon indartsu bat hargina zena lanbidez. Josetxo izena zuen eta herrian denek miresten zuten oso indartsua zelako. Gainera, gizon jatorra eta bihotz onekoa zen. Herriko alkatea berriz, harroa eta txepel hutsa zen.

+10 urte

## RITA ERRALDOIA

Mikel Valverde



Ritak altuago izan nahi du. Gurasoei eskatuko die laguntza, baina ez kezkatzeko esaten diote beti, guztiek maite dutela den bezalako. Egun batean, ordea, azokan edabe magiko bat aurkituko du.

# aurkibidea



**8**  
gaia

## NAFARROAKO LANDA EREMUKO ESKOLAK

la 80 eskola txiki daude gaur egun Nafarroan, baina lurraldeko Gobernuak ez du onartu ere egiten euren izaera, eta horrek arazo administratibo ugari dakartza. Arazo horiek identifikatu eta euren aterabidea aurkitzeko, irakasle talde handi bat elkartu da, eta urratsak egiten ari dira.



**15**  
elkarrizketa

## JORDI SOLE

Bizitza osoa soziolinguistikari lotuta darama Jordi Sole i Camardons katalanak. Afizioak, ofizioak eta katalanaren egoerak sortzen dion egonezinak eraman dute horretara.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## NAFARROAKO ESKOLA TXIKIAK

TXIKITASUNAK ELKARTURIK

**16** elkarrizketa

**JORDI SOLE**

**24** esperientziak

**OH HAPPY DAY!** Ikasleek musika eta dantza ikasten.

**26** ekarpenak

**Bikoteka** irakurtzen, parekoen arteko ikaskuntza.

**32** galdeidazue

**Behar bezala** eramaten al dute haurrek motxila?

Garikoitz Lopez de Munain

**35** berriak

**40** nora joango gara?

D'elikatuz

**42** Atzeko atetik

Matxalen Bilbao.

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Aragazki Press (Ihaben herrian). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-04-13). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
**HIK HASI** egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitetz!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala maiatza

## Haur eta gazteak gure ispilu, noski.



**Begira diezaiegun zintzotasunez:  
zerk harritzen gaitu, hainbeste?  
Hain desberdinak ote dira  
guregandik? Nork ez du  
“guapotasunaren” bila?**

Eusko Jaurlaritzak haurtzaroaren eta nerabezeroaren behar eta eskariak ikerketa egin berri du.

Ikerketa horretan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 194 adingabe, 91 guraso eta 84 irakasle galdekatu dituzte: 369 lagun, orotara.

Ikerketa horren ondorioak, gainera, beste zenbait lanekin batera, *Euskal Autonomi Erkidegoko Haur eta Nerabeen I. Plana* egiteko oinarri gisa erabiliko omen dituzte. Plan hori, seguruenik, urte honen amaierarako onartuko da.

Egun hauetan, hainbat egunkari-tako izenburuetako letra lodietan ikerketa horren zenbait ondorio irakurri ahal izan dira: ikerketa nork bere begiekin ikusten dituztenak. Hala, “Nerabeek guapo egon nahi dute bes-teen onarpena jasotzeko”, “Euskal gazteek haien irudi fisikoa zaintzen dute irainen eta bazterkeriaren berdur” eta “Etorkinak bazterketa sozia- larekin lotzen dituzte haur eta nerabe-ek” irakurri ditugu, besteak beste.

Eta zein beste ondorio agertu dira? Ikasketak gauza aspergarriekin erla- zionatzen dituztela; hala ere, gazteek beren etorkizunaren agertokia ikas- ketekin lotzen dute.

Komunikazio falta dagoela haien eta gurasoaren artean, eta ez soilik se- xualitatearekin harremana duten gaitan. Gurasoekin gai intimoak par- tekatzek lotsarazi egiten dituela.

Zoriontasunaren ideia kontserba- dorea dute: zoriontsu izateko bikotea izatea beharrezkoa da eta amatasuna “esperientzia utziezina” da. Gainera, haien bizitzako helburua, norbera be- re etxearen jabe izatea, lan egonkorra eta bikotea lortzea dira.

Bestalde, txostenaren ondorioen arabera, nerabeek, batez ere hirigu- neetakoek, txirotasuna eta bazterke- ria segurtasun ezarekin erlazionatzen dituzte. Lehen Hezkuntzako zein Bi- garren Hezkuntzako ikasleek immi- grazioa bazterketarekin identifikatzen dute.

Azpitarratu behar da ondorioak

ez direla hainbeste alderatzen duela hamarkada bat edo bi beste gazte ba- tzuekin egindako ikerketetan lortuta- koetatik.

Baina hain desberdinak ote dira guregandik? Gutako zenbatek ez ote ditugu haien nahi eta iritzi berak?

Murgilduta gauden jendarteak dauzkan eta sustatzen dituen estrate- giei ederki erantzuten diete gure gaz- te gehienek, ikerketaren arabera. Jen- darteak eskaintzen dizkien ereduak sakon txertatzen ari dira gure haur eta nerabeengan. Etxekoek, komunika- bideek eta hezkuntzak ere serio haus- nartu beharko genuke zein balio eta munduaren zein ikuskera azaldu nahi diegun.

Agertutako emaitzen artean, ikas- leek gaitasun kritiko urria dute eta jen- dartearekiko interes eskasa. Era bere- an, ez dute partaidetzarako estrategia edo gunerik ikusten eta erabakiak har- tzea, politikariekin erlazionatzen dute. Azken ideia hori ez dugu inongo izen- burutan ikusi. Atarramentu ederra!

# kronika

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako eskola publikoetako jangeletako langileek greba egin zuten apirilaren 14an LAB, ELA eta UGT sindikatuak deituta.

Enpresa pribatuen esku diharduten eskola publikoetako jangeletako langile hauek salatzen dute ez dela aurrerapausorik eman lan hitzarmenaren negoziazioan, “konbenioaren egoera kritikoa” dela salatu dute. Euren lan baldintzak erakunde publikoaren esku dauden langileekin parekatzeko eskatzen dute, eta horrek soldaten igoera eta lan baldintzen hobetzea ekarriko luke; eta horrez gain, Eusko Jaurlaritzak negoziazioetan parte hartzea nahi dute. Grebaz gain, manifestazioan irten ziren Gasteizen, Bilbon eta Donostian jangeletako langileak. Haatik, LAB eta ELA sindikatuak salatu zuten, greba egunean ohi baino gutxienezko zerbitzu zabalagoak jartzera behartu zituen jangeletako langileak Jaurlaritzak.



## Zonifikazioaren kontrako jaia egin dute Mendigorrrian

Apirilaren 10ean euskararen zonifikazioaren aurkako bigarren jaia ospatu zuten Mendigorrrian (Nafarroa), herri horretan eta Artaxoan bereziki, baina baita lurralde historiko guztian ere euskararen ofizialtasuna eskatzeko. Sortzen Ikasbatuaz eta Biderra elkarteek eta inguru ez euskalduneko gurasoek antolatu zuten jaia, eta ehunka lagun bildu zituen. «Helburua Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna eta auzo zein herri guztietan euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzea» izan zen, Sortzen Ikasbatuaz elkarteak azaldu zuenez.

Euskarazko hezkuntza publikoa aldarrikatzeko *Zonifikazioari ez, Ofizialtasuna Mendigorrrian, Artaxoan eta Euskal Herri osoan* aldarrikatu zu-

ten. Gaur egun indarrean dagoen zonifikazio-legea aldatzea eskatzen dute elkarteek, gaur egun Nafarroako Gobernu Foralak ez baitie zonalde ez euskalduna deituriko guneeetako haurrei euskaraz ikasteko aukerarik ematen sare publikoan. Horrekin loturik, D eredu-ko landa eremuko hainbat eskola txiki itxi izana ere deitoratu zuten Mendigorrrian bildu ziren euskaltzaleek.

Egitarau «herrikoi, oparo eta solidarioa» osatu zuten, Mendigorrria, Artaxoa, Mañeru eta Ziraukiko Udalen laguntzaz, goizeko 10:00etan hasi zen jaia, eta ilunabarrean bukatu. Jaian bildutako diruari esker herrietatik haurrikastetxe euskaldunetara eramateko erabiltzen duten taxiaren gastuak ordaindu ahal izan zituzten gurasoek. Mendigorrriatik eta Artaxoatik zortzi haur joaten dira Gareseko eskolara eta horrek urtean 6.000 euroko gastua dakar, eta ez daukate erakunde publikoen inolako laguntzarik. Gurasoek, baina, bide horretatik jarraituko dutela adierazi zuten, “gure seme-alaben eskubideak errespetatu dituzten borrokan jarraituko dugu, lotsagarria baita XXI. mendean hainbeste traba jartzea gure seme-alabentzako kalitatezko hezkuntza aukeratu nahi dugunean”.

Iaz egin zuten zonifikazioaren kontrako lehen jaia Artaxoan, eta orduan ere ikaragarritzko jendetza bildu zen.

## "Erraztasunaren automatismoa ez dago gure alde, ez. Eta zer? Gure alde edertasuna eta askatasuna dago, minoritarioa beti"

Joxe Azurmendi



### Baxoa euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatu dute Baionan

Baxoa euskaraz eginez gero goi mailako ikasketak egiteko erraztasuna izango luketela argudiatuz, Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleek gutuna bidali diote Bordeleko Hezkuntza Akademiako errektoreari, Baxoa euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatuz. Ikasleek diote, kolegioa bukatzeko azterketa usaian ikasketetarako erabiltzen duten hizkuntzan egiteak aisatasuna ematen dietela, eta ondorioz azterketako emaitzak hobekiago izango litzuketela, eta ondoren egingo dituzten ikasketetarako sarbidea erraztuko lieketela horrek.

Bernat Etxepare lizeoko 120 bat ikaslek protesta egin zuten iragan apirilaren 5ean baxoa frantsesez egitera behartuta daudelako, eta protesta ho-

rretan, lizeoko administrazio kontseiluko kideen babesarekin, Behatokikoena eta Euskal Herrian Euskaraz elkarteara izan zuten gazteek.

Ikasleek protesta horretan Bordeleko Hezkuntza Akademiako errektoreari bidali zioten gutuna aurkeztu zuten, eta eskutiz horretan azpimarratzen dute Frantziako Gobernuak euskara gero eta gehiago baztertzera eramaten dituela baxoa hizkuntza horretan egiteko aukerarik ematen ez duenean. Gazteek salatu dute Frantziak ez dituela errespetatzen Nazio Batuen Erakundeak herri autoktonoetako herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko egiten dituen gomendioak.

Gaur egun, ikasketa amaierako baxoa azterketan Historia-Geografia eta Matematikako azterketak euskaraz egin ditzakete, eta ikasleek errektoreari galdetzen diote gainerako frogak ea zergatik ezin dituzten egin euskaraz. Izan ere, frogak frantsesez egin behar izateak "ondoez erantsi bat" sortzen dietela kexu dira.

Euren ohiko ikasketa-hizkuntzan estudiatu eta baxoa beste hizkuntza batean egin beharrik sortzen dien ondorez hori saihesteko, hainbat ikaslek ikasketak Hego Euskal Herriko ikastetxetan egitea erabakitzen dute, edo bestela, azken urteetako ikasketak frantsesez egiten dituzte, baxoan bertan jauzirik ez nabaritzeko.

Paueko Akademia Ikuskaritzak 29 irakasle kenduko ditu datorren ikasturtean, eta horrek zuzenki eragingo die Ipar Euskal Herriko ikastetxeei. Mozketa horren ondorioz, hezkuntza publikoko gela elebidunetan euskarazko bi postu erdi kenduko dituzte.

Hezkuntza sindikatuek hezkuntza elebiduna arautzeko irizpideen berri galdetu zien Philippe Couturaud akademia ikuskariari, baina honek azaldu zien gela elebidunak irekitzeko edo atxikitzeko hitzarmen horren berri ez duela ezagutzen.

Larritzat jo zuten ezezagutza hori sindikatuek. Izan ere, Euskararen Erakunde Publikoa bitartekari zela sindikatuei

adierazi zieten ama eskolan 25 haur edo lehen mailan 22 haur direlarik ikasgela batean, beste gela bat ireiko zutela, baina

Couturauden adierazpenek hitzarmen hori baliogabetzen dute. Itun hori bete ezean, Bidarrain (Nafarroa Beherea),

Jatsun, Hiriburun edo Larresoron (Lapurdi) egoera nahiko gogorra izango dute irakasleek.

Hezkuntzako sindikatuek Akademiak iragarritako mozketen aurka greba eta protestak egin zituzten.

# GAIA

**Nafarroako landa eremuko eskolak**

***Txikitasunak elkaturik***



Ultzamako eskolako ikasleak





Igantzikoko eskolan

**la 80 eskola txiki daude gaur egun Nafarroan, baina lurraldeko Gobernuak ez du onartu ere egiten euren izaera, eta horrek arazo administratibo ugari dakartza. Arazo horiek identifikatu eta eurei aterabidea aurkitzeko, irakasle talde handi bat elkartu da, eta urratsak egiten ari dira. Zailtasunak zailtasun, herri ikastetxe txikien eredia oso aberatsa dela diote.**

## Eskola txikiak, izan badirelako

Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuak lurraldeko Haur Hezkuntzako ikastetxeetara astean hiru bider barazkiak eta fruituak eramateko programa jarri du abian, baina programa horretatik kanpo utzi ditu 75 ikastetxe, eskola publiko horiek programan parte hartzeko behar adina haur ez dituztelako. Ez dituzte eta ez dituzte izango, eskola txikiak baitira. Baina Nafarroako Gobernuak eskola txikien izaera ez du oraindik kontuan hartzen, gisa horretako ekimenak bultzatzen ditue-nean.

Horixe da Nafarroako eskola txikiek gaur egun bizi duten errealitatea: izaera bera ere ez dietela aitortzen Gobernuak. Eta, hortik hasita, arazo administratibo ugari dituzte.

Arazo horiei aurre egiteko eta indarrak batzeko, eskola txikietako irakasle talde bat elkartu da, eta urratsak egiten ari dira elkarrekin. Administrazioetik kanpo sortutako mugimendu horrek landa eremuko Nafarroako ikastetxeen %70 inguru batu du. Duela bi urte eta erdi hasi ziren elkartzen eta urtean hiruzpalau bilerak egiten, arazoak identifikatzeko eta aterabideak aurkitzeko;

“Lehen bileratik zonalde guztietako irakasleek erakutsi zuten interesa eta elkartzeko premia”, gogoratu du Eneko Fernandez Urdazubi-Zugarramurdiko eskolako zuzendariak. “Maisu-maistren topagune izango zen elkarte bat behar genuen, bakoitzak bere esperientziaren berri emateko eta besteak ezagutzeko aukera emango zion bilgune bat”. Elkarte horrek ehun bat irakasle batu dituzten jardunaldiak antolatu ditu berriki, eta administrazioa ere bertaratzea lortu du.

Urtarrilean Lekarozen egindako jardunaldi horien bidez, lehenik eta behin, landa eremuko eskolek abian jarri duten elkarlana eman zuten ezagutzera, eta eskola txiki horien arteko ezagutza eta lankidetzak bideratu eta bultzatu zituzten. Garrantzia berezia izan zuen, Nafarroako landa eremuan, maisu-maistren artean elkarlanerako zubiak eta eztabaidarako espazio komunak sortzeko sumatu zen premiak. Jardunaldien balioespina “oso positiboa” izan da antolatzaileentzat: “Baztan eta Bidasoaldeko irakasleak ez ezik, Pirinioetakoak, Lizarraldekoak edota Sakanakoak izan ziren Lekarozen”.



Landa eremuko eskoletako bailara ordezkariak, Nafarroako lehen jardunaldietan.

# G

# Landa eremuko eskolak

## Hagitz errealitate desberdinak

**Nafarroako eskola txikien erradiografia bat egiten hasita, oso ezaugarri desberdinak dituzten ikastetxeekin egingo genuke topo. Gaur egun, 78 ikastetxe daude guztira, 11 zonaldetan bereizirik:**

1. Arraioz, Amaiur, Ziga, Oronoz, Azpilkueta, Arizkun, Erratzu, Irurita, Gartzain, Almandoz eta Urdazubi-Zugarramurdi.

2. Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Legasa, Narbarte, Ituren, Areso, Betelu, Goizueta eta Jauntsarats.

3. Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Sunbilla.

4. Erronkari.

5. Otsagabia eta Ezkaroze.

6. Garralda, Auritz, Aurizberri, Erro, Luzaide, Urrotz eta Zubiri.

7. Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza, Olazti eta Urdiain.

8. Ledea, Zare, Esa, Oibar, Kaseda, Irunberri eta Elo.

9. Añorbe, Obanos, Barasoain, Berbintzana, Mendigorria eta Miranda Arga.

10. Figarol, Mélida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara, Beire, Pitiillas eta Uxue.

11. Abartzuza, Allo, Antzin, Arroitz, Lezaun, Lerin, Murieta, Oteitza, Cárcar, Deikaztelu, Sartaguda, Sesma, Villatuerta eta Zudairi.



Oronozko eskola.

Arantzatik Allora, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera, oso errealitate desberdinak bizi dituzte 78 ikastetxe horiek. Batzuek bost haur dituzte, eta beste batzuek, 50 edo 90. Batzuek irakasle bakarra dute, eta badira 11 irakaslekoak ere. Zenbaitek gela bakarra dute ikasle guztientzat, eta beste batzuek bi edo hiru gela dituzte. Baina publikoak, herrikoak eta tamaina txikoak dira guztiak, eta horrek batzen ditu. Landa eremuko eskolatzat definitzen ditu administrazioak eskola txiki horiek, baina eskola txikietako irakasleek ez dituzte zentrook nekazaritza edo abeltzaintza eremuarekin lotzen, azken hamarkadan izandako aldaketa sozioekonomiko eta kulturek herrien ezaugarriak aldatu dituzten neurrian, eskola txikien ezaugarriak ere aldatu dituztela ikusi baitute. Horregatik, ikastetxe horien izaera berriro definitzea beharrezkoa dela uste dute irakasleek, eta herri eskola modura defini-

tzen dituzte: “Hiriaren eta herriaren definizioak kontrajartzea interesatzen zaigu, guk ez baitugu hirietako errealitatea bizi”.

Beharrak eta premiak elkartu ditu eskola txikietako irakasleak, baina jakitun dira pedagogikoki abantailak dituztela eskola handien aldean: “Giza harreman estu eta sakonagoak izateko aukerak ditugu ikasleen, irakasleen eta gurasoen artean, herri administrazioarekiko harreman handiagoa izan dezakegu, ikasteko eta irakasteko prozesua arunt pertsonala izan ohi da, baliabideak kudeatzeko erraztasunak ditugu...”

Baina, esan bezala, beharrek eta arazoek elkartu dituzte, batik bat, irakasleak. Ikastetxe bakoitzak premia bereziak dituen arren, administrazioari begira behar eta betebehar berberak dituzte, guztiak publikoak direnez, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren mende baitaude; eta haren betebehar



dira, adibidez, eskolen kudeaketa administratiboa, egoitza eta materialen hornidura, curriculumaren inguruko aferak...

Irakasle taldea elkartzen hasi, eta lehen gauza diagnosi bat egitea izan da, eta euren arazoak identifikatzea. "Txosten horrekin egin dugu aitzinera", dio Fernandezek. Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentura nahiz sindikatuetara eta eragileetara aurkeztu dute txosten hori. Txosten horretan, bost ardatzetan biltzen dituzte arazoak: lehenengo, afera ekonomikoak aztertu dituzte, ikastetxearen horniduretarako eta funtzionamendurako soseki dagozkien arazoak, esate baterako; bigarrenik, giza baliabideei loturiko aferak aztertu dituzte; hirugarrenik, kudeaketari loturikoak; laugarrenik, egoitzei buruzkoak, espazioa falta baitute askok, edota baldintza kaxkarretan baitaude batzuk; eta azkenik, esko-

la txikien izaera onartzea eskatzen dute.

"Legedi guztietan gure berezitasuna aitortzea, horixe nahi genuke guk", dio Fernandezek. "Hezkuntza Departamentutik egiten diren gauza guztiek eskola handiak hartzen dituzte aintzakotzat, eta programa anitzek ez dute balio guretzat". Ingeleserako kanpaina berri bat jarri du Fernandezek adibidez: ikastetxeak bosgarren mailan 15 ikasle izan behar ditu gutxienez, programa horretan sartu ahal izateko. "Guk igual ikastetxe osoan ere ez ditugu 15 ikasle". Lege eta egitasmo guztietan eskola txikien izaera kontuan izatea eskatzen dute, beraz, eta egin beharrekiko salbuespenak egitea. "Administrazioak gu aintzakotzat hartzea eta tratu desberdin eta duina jasotzea gustatuko litzaiguke".

Elkartzen, txostena egiten eta eskaerak egiten hasi direnetik, aldaketak

sumatu dituzte Hezkuntza Departamentuan. Baina, hala ere, hezkuntza proiektua oraindik Iruñean zentralizatzen dela ikusten dute: "Ez ditugu esku-bide berak oraindik, eta guk horixe eskatzen dugu: Izaban bizi den batek, Tuteran bizi den batek, Lesakan bizi den batek edo Iruñean bizi den batek esku-bide berak izatea".

Iaz, lehen aldiz, Nafarroako Lege Proiektuaren eztabaida prozesuan solaskide gisa gonbidatu zituen Gobernuak landa eremuko eskola txikietako eragileak. "Lege guztietako atal guztietarako geure proposamena aurkeztu genuen", dio Fernandezek. "Orain, legea ateratzen denean, proposamen horiek aintzat hartu dituzten ala ez ikusi beharko dugu". Bitartean, araudi alde-tik "aldaketa txikiak" gertatzen ari direla dio irakasleak: "Ari dira konturatzen existitzen garela, eta horixe da lehen-dabiziko pausoa".



Nafarroako landa eremuko eskolen lehen jardunaldiak.

# Landa eremuko eskolak

## Abantaila metodologikoak

Desabantaila administratibo ugari dituzten arren, eskola txikiek badituzte euren abantailak ere, eta ez dira gutxi. Abantaila horiek gorde eta defendatu nahi dituzte elkartu diren irakasleek. Lehenik eta behin, premiak berak eskola handiek erabiltzen ez duten metodologia erabiltzera bultzatzen ditu irakasleak: eskola txikietan, adin desberdinetako haurrak elkarrekin egoten dira, eta horixe da eskola txikien ezaugarri bat; metodologia tradizionala baztertzera daramatza horrek. “Guk beste-lako metodologia aukeratzen dugu: proiektuen bidez lan egitea”. Irakasleak adinaren arabera geletan bereizi gabe eta ikasliburuak erabili gabe irakatsi ohi dute, beraz, eskola txikietan. Eskola txiki asko beharrak eraman ditu pedagogia hori aukeratzera, baina Baztanen kontzienteki egiten dute hautu hori: “Adinak ez bereiztea eta proiektuen arabera lan egitea ikasleentzat oso aberasgarria den sistema da”, dio Fernandezek. “Ezin ditugu landu gai guztiak ikasle guztiekin ikasliburuaren bidez, gela berean oso adin desberdinetako irakasleak dituzulako. Irakasle zaharrenek beraien lanak egiten dituzte, eta, adin txikiko irakasleak lanean ari diren bitartean, euren ere balio die erreparatzeko; eta alderantziz, adin txikiagoko irakasleak gauzak lantzen hasten dira, aldameneko irakasle zaharagoak lantzen ari direnean”. Ikaste prozesuan, adin desberdinetako ikaslearen arteko elkarrekin-tza eta laguntza oso aberasgarria eta baliagarria dela uste dute metodologia hori darabilten irakasleek.

Beste alderdi positibo bat irakasleek lortzen duten autonomia maila da. “Za-

harrenek ardura handiagoak hartzen dituzte txikiagoekin”. Metodologia aldetik, horixe iruditzen zaio irakasteko metodori onena Fernandezi: “Eskola handi batean irakatsiko bagenu ere, metodologia horixe aldarrikatuko genuke”. Adinkako sistema tradizionala, gainera, ez zaio naturala iruditzen Fernandezi: “Bizitzan adinaren arabera banatzen gaituzten alor bakarretakoa da eskola tradizionala, ez lagun artean, ez kirol ekintzetan ez beste ezertan ez gara adinaren arabera banatzen”.

Eskola txiki askok proiektuetan eta gelak partekatzean oinarritzen den metodologia erabiltzen duen arren, landa eremuko eskolek ez daukate metodologia bateraturik oraingoz. “Bakoitzak bere erara lan egiten du, nahiz eta badiren oso ondo koordinatuta eta elkarlanean ari diren zonaldeak ere”. Beste batzuek, aldiz, banaka lan egiten dute, euren kabuz garatzen dute eskola programa. “Oraingoz, Nafarroako eskola txiki guztiok ez gara hasi metodologia bateratu bat lantzen; lehen urratsa administrazioarekin ditugun arazoak konpontzea da”. Baina ez dute baztertzeko etorkizunean metodologia bateratu batekin lan egitea.

Eskola txikiek koordinatuta lan egiten duten zonaldeen eredu da Baztan, gaur gaurkoz, tradizioz eskola txikiek elkartuen funtzionatzen duten zonaldea baita. Ia hogeitun urte dira elkarturik eta koordinaturik lan egiten dutela hango 11 eskolek. “11 eskolek eskola bakarra balira bezala funtzionatzen dute, eta hori, azken batean, koordinazio eredu bat da, landa eremuko beste eskola txiki batzuentzat”. Proiektuak, irteerak

edota kanpaldiak partekatzen dituzte, eta ikaslearen arteko sozializazioa ere bermatzen dute, tarteka, zenbait zentrotako haurrak hainbat ekimenetarako elkartuz.

Metodologiaz aparte, eskola txikien beste ezaugarria bat ikaslearen, gurasoen eta irakasle eta eskolaren arteko hurbiltasun handia da. 10 hurreko eskola batean, gurasoak eskola baten bostena izan daitezke, adibidez, eta zeresan handia daukate familiek. Irakasle bakoitzaren jarraipen zehatza egiteko aukera ematen du, gainera, eskola txikiak. Eta horrek eragina dauka herri txiki horien bilakaeran: azken batean, eskolak bizia ematen dio herriari, eta, eskola ixtean denean, galdu egiten du bizia herriak.

Metodologia tradizionala ez erabiltzeak abantailak dakartzkio ikaslearen garapenera eta autonomiarra, baina irakasleei beste lan bat egitea eskatzen die. “Eta zenbait irakasle ez dago prest horretarako: unibertsitatek ateratzen diren irakasle askok ez dakite gisa horretako eskola txikirik izan badenik ere; ematen den eredu bakarra adin bereko ikasle osaturiko gelak eta ikasliburuaren bidezko metodologia da; eta eskola txikietan, norberak egokitu behar du proiektua bere eskola txikiko behar eta errealitate-ra, norberak bilatu behar ditu jarduerak”. Baina behin metodologia eta sistema honetan murgiltzen den irakasleak emaitza “hobeak” eta “aberatsagoak” jasotzen ditu. “Lehenengo ezagutu egin behar gaituzte, bai irakasleek eta baita administrazioak ere, landa eremuko eskola txikiak aintzat hartu, txikiak izanagatik eskubide berak baititugu”.



## Igantzikoko herri eskola

### Emozioak protagonista dituen eskola

Eskola txikia izatearen abantailak baliatu dituzte Igantzin, irakaskuntza beste era batean lantzen hasteko: emozioen hezkuntza lantzen dute. “Eskola txikia izateak lagundu besterik ez du egiten emozioen gaia lantzerakoan. Hau familia bat da, familia polit bat, eta konfiantza handia dago”, dio Joxean Ortega irakasle eta eskolako zuzendariak. Igantziko eskolako proiektua aurkeztu zuten landa eremuko irakasleek, urtarrean Lekarozen egin zuten topaketan.

Jon Berastegik emozioen hezkuntzako mintegi bat eman zien Igantziko eskolako irakasleei, “parte-hartze aktibo eta barrenekoa eskatzen zuen ikastaroa”; eta Ortega zuzendariak dioenez, prestakuntzaren ondoren irakaskuntza beste modu batera ikusten hasi dira, erabat. “Zeure buruari galdetzen diozu ea egiten ari zarena baliagarria ote den; ze, ematen dituzu gai pila bat, eta hurrengo urtean ikusten duzu ikasleak ez direla ezertaz akordatzen. Zertan ari gara, orduan? Zertarako?”. Edukiak bere horretan, “hain modu itxian” landu beharrean, emozioak lantzea erabaki zuen orduan Igantziko eskolak; “Irakaskuntza beste era batera ikusten dugu orain, eta gustura gaude”. Pertsonari, bere osotasunean, eman nahi diote garrantzia. “Beste lekuetan bezala, hemen ere edukiak lantzen genituen, eta pertsonak, pertsona diren neurrian, baztertuak gelditzen zirela ikusten genuen; aldatzea erabaki genuen orduan, emozioetan oinarritzea

heziketa, eta balioak lantzea, pertsonon oinarri direlako”.

Jon Berastegiren mintegiaren aurretik ere, emozioak eta balioak lantzen gutxienez 10 urte zerematan Igantziko eskolak: sexu heziketako mintegia, yogako ikastaroak, emozioen hezkuntzakoak Mariaje Urangarekin, gatazken ebazpenari buruzkoak...

Mintegia egin eta programazioa osatu ondoren, eskolara egokitu dute, eta, ikasturte honetan, emozioak lantzeko proiektu bat jarri dute abian eskolan. Hiru helburu ditu proiektuak:

1- Pertsona bere osotasunean lantzea, eta ez edukien aldetik soilik. Ikasleak barrenean daukana ateratzen lantzea, eta horri balioa ematea.

2- Atentzioa eta ikasteko teknikak hobetzea. Erlaxazioa, azterketa aitzineko antsietatea kentzea, ikasteko kontzentrazioa lantzea...

3- Aldaketari aurre egiteko gaitasunak eta tresnak ematea; izan ere, 6. maila bukatzen dutenean, Berara joaten dira Igantziko ikasleak, familian egotetik

institutura igarotzen dira, eta ikaragarriko aldaketa da hori.

### Emozioak curriculumean

Helburu horiek lortzeko, curriculumaren eta ordutegiaren barruan lantzen dituzte emozioak. Batetik, tutoretza eskoletan egiten dute hori, baina eskola orduetan yoga eta sormen margolaritzako eskolak ere lantzen dituzte, eta lehendik antzerkia ere egiten zuten. Bestalde, eskola orduetatik kanpo, kirola aniztasuna lantzen hasi dira, berdintasuna, lehia izaerarik gabeko jarduera eta norbera bere buruarekin eta gorputzarekin ondo sentiaraztea sustatzen duen kirol jarduera.

Ortegaren ustez, funtsezko ezaugarria da Igantziko eskola giroan dagoen konfiantza, emozioak lantzeko “Haurrek konfiantza behar dute emozioei buruz solastatzeko. Eta ezagutzak ematen du konfiantza; eta, ezagutzeko, konfiantza sentitzeko, irekitzeko eta adierazteko, bakoitzak bere denbora behar du”. Eskolan haur gutxi izateak



# Landa eremuko eskolak

lagundu egiten du ikasle bakoitzak behar duen denbora hori har dezan, zuzendariak dioenez.

Igantzi 600 bat biztanleko herria da, eta 60 bat haur ditu eskolan, 38 familia. “Hurrek gugan ikaragarriko konfiantza dute; gu euren irakasleak gara, baina zerbait gehiago ere bagara, haurrak maite ditugu eta zaintzen ditugu, eta eurek ere maite gaituzte”.

Hurrekin bezala, gurasoekiko gertutasunak ere irakaskuntza eredu hau bultzatzeko anitz laguntzen duela dio ikastetxeko zuzendariak. “Ikasturte hasieran aurkeztu genien lanketa gurasoei, eta emozioen hezkuntzari buruzko liburuak ere pasatu genizkien; harriritua baina oso gustura hartu zuten proposamena”. Heldu den ikasturteari begira, Igantzi irakasleek jaso duten prestakuntza gurasoei egokitzea eta hakien lantzea litzateke ikastetxearen asmoa, Beran egin duten bezala.

Emozioen hezkuntza lantzeko ikastetxeak egin duen proiektua aurrea eramateko Igantzin duten arazo bakarria dirua da. “Eskola txikietan dugun arazoa hori da, dirua”. Proiektuak eskolaz kanpoko irakasleen kontratazioa eskatzen du; Marina Pintosek ematen du yoga, eta Felix Ligok, berriz, sormen margolaritza, eta antzerkirako eta kirol aniztasuna lantzeko ere jendea kontratatu behar dute. 12.000 euroko aurrekontua du proiektuak, eta Nafarroako Gobernutik 4.000 euro jasotzen dituzte urtean; baina, hala ere, kanpoko finantzazioa bilatu eta lortu dute. “Heldu den urtean proiektuarekin jarraitzeko zailtasun gehiago izanen ditugu, baina saiaturako gara”.

## 3 urtetik hasita

Balioak eta emozioak bost ardatzen arabera lantzen dituzte ikastetxe osoan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hez-

kuntzako gela guztietan, ariketak adinaren arabera moldatuz eta egokituz. Hauek dira lantzen dituzten gaitasunak:

1- Kontzientzia emozionala edo sentitzen dituzten emozioak identifikatzea eta izena jartzea, haurra sentitzen duena zer den jabe dadin.

2- Emozio positiboak zein negatiboak kontrolatzen ikastea.

3- Autonomia emozionala, edo nia lantzea.

4- Emozioak komunikatzen eta gizarteratzen ikastea.

5- Bizitza positiboki hartzen ikastea.

Haur Hezkuntzan, 3, 4 eta 5 urteko haurrak elkarrekin edukitzen dituzte gelan Igantzin, eta guztiak hasi ziren ikasturte hasieran emozioak lantzeko ariketa praktikoak egiten. “Ariketak egiten hasi ginenean, nahiko bakanak zirela iruditu zitzaigun, eta 3 urteko hurrekin emaitzak eman ahal izatea zaila izango zela uste genuen”, dio Rosa Maiz irakasleak. “Baina, orain, ikusi dugu emaitzak ematen dituela, eta denek ez bada ere gehienak solastatzen direla nahiko ongi, eta erraten dutela, adibidez, ‘triste nago’. Emozioak adierazten dituzte txiki-txikitik, eta adieraztera ausartu ez dena ere ohitu da besteren ahotik entzutera, eta gogoeta egitera”.

Astean arratsalde oso bat eskaintzen diote emozioak eta balioak lantzeari, baina egunero eskaintzen diote denbora gaiari, Haur Hezkuntzako gelaletan. Adibidez, ariketarako bat termometroarena da: haur bakoitzak termometro bat du orri batean marraztuta, eta, gibelean, 15 egunean behin, betebeharrak bat edo asmo bat idazten dute; eta egunean zehar asmo hori bete badute, eranskailu gorri bat jarriko dute termometroan, eta etxera eramango dute. “Hasieran, geuk erraten genien

eranskailua merezi zuten ala ez, baina, orain, eurak dira askotan ez dutela merezi aitortzen dutenak, guk jakin gabe ere, jolas orduan edo beste orduren batean betebeharrak urratu dutelako”. Irakasleek ez zuten espero hain txikitatik hurrek kontzientzia hartuko zutenik.

Lehen Hezkuntzan, asteko bi tutorretza saiotan lantzen dituzte balioak eta emozioak, ariketen bidez, normalean. Eskola orduetan emozioei buruz hitz egiten dutenean, hurrek emozio horiek euren biografiarekin edo ingurukoekin lotzen dituzte: “Eskua altxatu eta nola sentitzen diren azaltzen dute, baztertuak sentitu izan direla edo triste daudela adierazten dute”, azaldu du Lehen Hezkuntzako irakasle Marta Orubek. Emozioak lantzeko ariketa horiei esker, gainera, bullying kasu bat ere antzeman zuten ikastetxean, eta gaur egun, ikasleak gai dira horretaz hitz egiteko, bai bullyinga jasan zuena eta bai eragileak ere.

Irakasleentzat ez da erraza izan hezkuntza eredu berria lantzea. Batetik, ikasleak euren emozioak adierazten aditzaiek hunkitu egin dituelako irakasleak; eta bestetik, gai honetan eredu izatea ez delako erraza: “Konturatzen gara geuretzat ere zaila dela emozioak adieraztea eta kudeatzea”, dio Maizek. “Eta askotan hurrei eskatzen dieguna geuk ere ez dugu betetzen”. Ortegak dio irakasleentzat eredu ematea dela zailena: “Eskola horiek batzuetan sufriarazi egiten diote irakasleari, hurrek ez baitute egiten guk errandakoa; aitzitik, guk egiten dugunarekin ematen diegu eredu”.

Orain arteko esperientziaren balorazioa oso positiboa izan da, dena den, bai lantzen duten irakasleen aldetik eta baita zuzendariaren aldetik ere: “Umeak oso motibatuta ikusten ditugu, eta ondo ari garela uste dugu”.



## Eratsungo herri eskola

### Landa eremuko eskola txiki bat gutxiago izango da datorren urtean Nafarroan

Eratsungo eskola itxi egingo du datorren ikasturtean Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak. Bost haur behar dira gutxienez eskola bat itxi ez dezaten, eta Eratsungo eskolan lau haur bakarrik ari dira ikasten ikasturte honetan, eta hurrengoan ere lau izango dira. Haatik, hurrengo urteetan haur gehiago izango dira, ume txikiak baitaude Eratsunen, eta 2015era arte bederen bermatua dago gutxieneko haur kopurua. Urtebeteko salbuespena egiteko eskatu diote Gobernuari Eratsungo gurasoek eta alkateak, baina Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ez du salbuespenik onartu, eta Eratsungo herri eskola ixtea erabaki du.

Gurasoak, irakasleak eta herria bera nahiz sindikatuak mugitu dira Eratsungo eskola itxi ez dezaten, eta, Nafarroako Hezkuntza Departamentuarekin bildu diren arren, ez dute lortu Eratsungo eskola bost haurrekin beharrean laurrekin zabalik edukitzea. Ixtearen kontrako sinadura bilketa egin zuten hiru egunez, eta 1.200 sinadura bildu zituzten Gobernuan aurkezteko. Martxoaren 15ean izan zuten herriko ordezkariak bilera Nafarroako Gobernuarekin, eta, erantzuteko 15 eguneko epea zuen arren, Gobernuak zortzigarren egunerako jakinarazi zuen eskola itxi egingo zuela.

“Penaz” hartu du eskola ixteko erabakia Pedro Deskarga Eratsungo alkateak, eta hartutako erabakia aldarazteko zerbaitegiten saiaturiko direla adierazi du, “nahiz eta zaila izan den”. EILAS eta LAB sindikatuak ere salatu dute Nafarroako Gobernuaren erabakia, eta

irakasleei, gurasoei eta eskola elkarteari elkartasuna adierazi diete. “Eskola itxita ez da soilik eskola proiektu bat bukatzen, gizartearen garapena bermatuko duen proiektu bati ere ematen zaio bukaera, eta, zentzu horretan, atzerapauso garrantzitsua da”, adierazi du EILASek; LABek deituta, ixtearen kontrako elkarretaratzea egin zuten martxoaren 30ean, Iruñean.

#### 150 biztanle, lau haur

Basaburuko herrian 150 lagun bizi dira, eta ikasturte honetan, Jasone eta Amagoia Mindegia Benito eta Izarne eta Haritz Mariezkurrena Lasaga izan dira Eratsungo eskolako ikasleak. Jasone hurrengo ikasturtean Doneztebera joango da DBH egitera, 12 urte beteko baititu; baina Naroa Retegi Eskudero hasikolitzateke datorren urtean Eratsunen, 3 urte beteko baititu. Baina Naroak, horren txikia izanagatik ere, Doneztebera joan beharko du, hiru ikaskideekin batera, Eratsunen ez baita eskolarik izango.

Gurasoek haurrak Eratsunen gelditzea nahi zuten, haurrak horren txikiak direnez, ez zutelako nahi egunero Donezteberaino 15 kilometroko eta 35-45 minutuko bide bihurtuak egintaraztea. Horren haur txikiak egunero autobusean joan-etorrian ibiltzea eta egun osoa etxetik kanpo pasaraztea “gogorra” iruditzen zaie gurasoei.

Pedro Deskarga herriko alkateak ere saihestu nahi izan du landa eremuko eskolaren itxiera, horrek herriari bizia kentzen diolako. “Beti izan dugu eskola herrian, eta hemen jarraitzea nahi

dugu. Herriari bizia ematen dio. Haurrak egunero plazan jostetan ikusteak poz handia ematen du. Lehendik herria triste badago, eskola itxita tristeago geldituko da”.

Baina ez dute lortu, eta, gauzak asko aldatzen ez badira, eskola itxi egingo dute 2011-2012 ikasturtean. Eta orain, irakasleak, gurasoak eta alkatea beldur dira, beste kasu batzuetan bezala, behin eskola itxita, zaila gertatuko zaielako haur nahikoa dauzkatenean ostera ere eskola zabalitzea. Zubietan, Anizen edota Elgorriagan, adibidez, itxi egin zituzten eskolak haur gutxi zeudenean, eta ez dituzte berriro ireki, nahiz eta haur kopurua igo egin den.

Landa eremuko biztanleei hezkuntza eskaintza bermatu beharko liekeen Foru Legea urratzen du era horretan Nafarroako Gobernuak, eskola txikiak zabalik edukitzeko behar den gutxieneko haur kopurua edukiagatik ere, eskolak itxita baitaizkate. EILASek salatu du, horrelako neurriekin, Hezkuntza Departamentuak gehiago begiratzin diola errentagarritasun ekonomikoari ez errentagarritasun sozialari edo kulturalari.

Hezkuntza Departamentuak, Eratsungo eskola ixteko argudio gisa, lau haurrek beste haur batzuekin sozializatu behar dutela erantsi du. Baina gurasoek diote hori egiten dutela; izan ere, haurrak Legasara joaten dira, Maleurrekako Saldias eta Labaiengo haurrekin batera. Gainera, Legasako eskolan hiru haur izanagatik ere, eskola zabalik utzi zuen Gobernuak, salbuespena eginez, Eratsunen ez bezala.

# jordi

## sole i camardons

### *ELKARRIZKETA*

Soziolinguistika praktikatzailea

“Gauza bat prestakuntza linguistikoa da, nola hitz egiten den, gramatika, lexikoa... Eta bestea, prestakuntza soziolinguistikoa, hizkuntza batean hitz egiteak duen balioa, garrantzia, jarrera; hori dena ere irakatsi egin behar da ”





# jordi sole i camardons

## E

**“Lau proposamen egiten ditut hezkuntzaren eremuan soziolinguistika lantzeko. Batetik, hezkuntzaren soziolinguistika irakasgaia jarriko nuke. Bigarrenik, soziolinguistikaren presentzia, Bigarren Hezkuntzara ez ezik, unibertsitatera ere zabalduko nuke. Hirugarrenik, hizkuntzaren erabilera arau berriak irakatsiko nituzke. Laugarrenik, ikasleen hizkuntza motxila baliatuko nuke.**

”

Bizitza osoa soziolinguistikari lotuta darama Jordi Sole i Camardons katalanak. Afizioak, ofizioak eta katalanaren egoerak sortzen dion egonezinak eraman dute horretara. Unibertsitateko ikasketan zebilela, 4. mailan ohartu zen kezka horiek soziolinguistikaren bidez bidera zitzakeela. Katalunian hizkuntzak gauza guztietarako duen garrantzia ikusita eta, gainera, gaztelania katalana ordezkatzeko ari zela ohartuta, gizarte hori aldatu nahi zuen, eta, horretarako, soziolinguistikak aukerak ematen zituela ikusi zuen. Horregatik, abertzale gisa, gatazkaren soziolinguistika hedatzen jardutea erabaki zuen.

Jardun horretan, 16 liburu argitaratu ditu. Valentziako bi lagunekin batera, lehen hiztegi soziolinguistikoa idatzi zuen, 2001ean. Handik pare bat urtera, ingelesezko bertsio bat agertu zen, eta, gero, haren beste bertsio bat, gaztelaniazkoa. Bi eleberri ere idatzi ditu, eta horietan ere bere gaitik atera gabe aritu da. Eta azken lana editore gisa egin du. 1936ko testu bat argitaratu du. Gerra Zibila baino pixka bat lehenago argitaratu zen, baina, Gerra Zibilean, Francok erre egin zuen. Beraz, argitaratu ez balitz bezala zegoen, eta Jordi Sole i Camardons izan da lan hori hartu duena. Testu interesgarria iruditu zaio, soziolinguistikaren hasierarekin lotuta dagoelako, haren ustez, soziolinguistikaren ideologia 60ko hamarkada baino lehen hasi baitzen.

Bigarren Hezkuntzako irakasle aritu da urte askoan, eta institutuko katedraduna da duela urte eta erditik hona. Irakasle lanetan ere asko ikertu eta aztertu du hizkuntzaren jarreraren inguruan.

Soziolinguistika Klusterrak gonbidatuta etorri da Euskal Herrira, IV. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian parte hartzera.



**Sarreran aipatu dugun guztia esateaz gain, soziolinguistika praktikatzailerak zarela diozu. Zer esan nahi duzu horrekin?**

Gauza pertsonala da, baina hala definitzen dut neure burua. Badirudi unibertsitateko irakasle izan behar dela soziolinguista izateko, eta ez zen hori nire kasua. Horregatik, egokiagoa iruditzen zait praktikatzailerak hitza erabiltzea, horrek soziolinguistikarekin lotuta dauden gauza guztietarako balio baitu. Soziolinguistika praktikatzailerak izan daitezke unibertsitateko irakasleak, ikertzaileak, hedatzaileak, laguntzeko ikastaroak ematen dituztenak... Denentzat balio du, eta gustatzen zait.

**Ekoidiomatikoa ere bazarela diozu. Zer da hori?**

Nik ekoidiomatikoa erabiltzen dut, eta beste batzuek ekolinguista erabiltzen dute.

Erabateko paralelismoa ikusten dut ekologiaren eta hizkuntzaren artean. Hizkuntzaren edo soziolinguistikaren alorrean ekologiarekin zerikusia duen guztia hartzen dut ardatzat, hau da: nola kutsatzen den hizkuntza bat, nola garbi daitekeen, zer neurri hartu behar diren normalizazio politika bat praktikan jartzeko, zer akats egiten ditugun, zer eredu funtzionatu duten ondo, zer eredu ez duten funtzionatu... Eta hori dena, ikuspegi ideologiko-ekologistatik. Ekologista naiz, baina hizkuntzarena.

Ekoidiomatikoak hizkuntzarekiko jarrera eraikitzailea edukitzea esan nahi du: zertan lagun diezaioketun hizkuntzari, eskolan, auzoan... arlo guztietan susper dadin.

## Zer alde dago linguistikaren eta soziolinguistikaren artean?

Linguistika guk ateratzen dugun zarataz arduratzen da, eta soziolinguistika, berriz, pertsonen, hiztunen, haien nahiez, joerez... Alde nabarmena dago hor. Soziolinguistikaren bultzatzaile Lluís V. Aracilek zioen garrantzitsua zela jakitea hizkuntza nola erabiltzen den, baina ez hori soilik, hizkuntzaren erabileraren esentzia ezagutzea ere ezinbestekoa zela. Hizkuntza deskribatu baino areago, kokatu egin behar zela zioen, presentziak eta absentsiak ulertu eta aztertu.

## Eta zer alde dago soziolinguistikaren eta gatazkaren soziolinguistikaren artean?

Soziolinguistika kaxa handi bat da, oso-oso zabala, eta gauza pila bat dago barruan. Gatazkaren soziolinguistika, aldiz, hizkuntza bat beste baten gainean jartzen denean eta bata bestea deuseztatzen ari denean sortzen den gatazkari deitzen zaio.

## Zer da kontzientzia linguistikoa?

Kontzientzia nazionalaren alderdi soziolinguistikoa da. Marxismoaren garaian, kontzientzia nazional bat zegoen, eta baita hizkuntza baten parte izatearen kontzientzia ere. Balio positiboa da hori. Balio bat da, giza eskubideak diren moduan, beste balio bat. Gizarte batek eboluzionatu badu eta hizkuntza bat sortu badu, hori munduaren ikuskera zehatz bat eta gauzak esateko modu bat zeudelako gertatu da. Bestela, zergatik hitz egiten da hizkuntza batean leku batean, mendi artean beste batean eta Mediterraneoan beste batean? Esplikazio natural bat badu, eta garrantzitsua da hori onartzea eta horregatik ez lotsatzea.

Begira zer egin zuten Frantziako Iraultzan iraultzaileek. Hexagonoko bi herenek ez zutelako frantsesez hitz egiten konturatu ziren. Euskaraz, katalanez, okzitaniaraz, bretoiarrak... hitz egiten zuten. Horrek enbarazu egiten zien iraultzaileei, eta horri amaiera eman behar zitzaiola pentsatu zuten. Garai hartan asmatu zuten frantsesa ez ziren bes-



te hizkuntzak deuseztatzen diren lehenengo inkesta.

Bada, kontzientzia nazionalaren ikuspegitik, hori ez da onargarria. Ez. Hemen hizkuntza bat sortu eta hazi baldin bada, balio bat da, eta horrela balioetsi behar da.

## Zer ekarpen egin dio soziolinguistikak hezkuntzari?

Pentsamendu soziolinguistikoa 1928ko Luxenburgoko kongresuan egin zuen ekarpen handiena hauxe izan zen: adierazi zuen zentzugabeeria zela estatuko lurralde batzuetan berriena ez zen hizkuntza batean irakastea. Leku bakoitzean familietan hitz egiten den hizkuntzan irakatsi behar zela esan zen. Hori izan zen lehen ekarpen nagusia.

Aracilek, 1979ko artikuluan batean ("Educació i sociolinguística"), hauxe zioen: hezitzaileek hizkuntza arazo gisa hartetik haratago joan behar dute, eta ulertu beharreko gauza bat dela jabetu behar dute. Soziolinguistikaren bultzatzaile hark uste zuen kultura jarduerak ez zirela aski hezkuntzaren alorrean gai soziolinguistikoei aurre egiteko. Hezkuntzan, hitzarekiko interesa piztu behar zela pentsatzen zuen. Haren ustez, ezinbestekoa zen hizkuntzaren erabilerari garrantzia ematea. Hori zen haren zat kontzepturik garrantzitsua, soziolinguistikaren barruan.

## Zer proposamen egiten dituzu gaur egun, hezkuntzaren eremuan soziolinguistika lantzeko?

Batetik, hezkuntzaren soziolinguistika irakasgai jarriko nuke. Bigarrenik, soziolinguistikaren presentzia, Bigarren Hezkuntzara ez ezik, unibertsitatean ere zabalduko nuke. Hirugarrenik, hizkuntzaren erabilera arau berriak irakatsiko nituzke. Laugarrenik, ikasleek hizkuntzen motxila baliatuko nuke.

## Modu batera edo bestera eskoletan soziolinguistika landuz, hizkuntza gutxitua berreskuratzeko prozesuan, normalizazioan eta erabileran eragin dezakegu.

Bai, hala da. Aracilen ustez, hezitzaileek azaldu egin behar liekete gazteei nola hartu dituen gaztelaniak lehen katalanarenak edo euskararenak ziren esparruak. Eta oraindik ez da gelditu prozesu hori. Gure hizkuntzaren historia sozio-politikoan, gazteek hori ikasi behar lukete. Urteak pasatu arren, oraindik tabua da gai horretaz hitz egitea. Eta, aldiz, hori ezagutu eta ulertuz gero, askatasun handiagoa izango genuke aukeratzeko orduan.

Soziolinguista guztiok dakigu hizkuntza askatasunik ez dagoela. Eta egoera soziolinguistikoa buruzko gogoeta eginez gero, ikasleek askatasun handiagoa izango lukete.

# jordi sole i camardons

E

“Irakasleek erabilera arau berriak irakats ditzakete. Ez daude idatzita inolako paper edo legetan, baina, hainbat faktoreren ondorioz, jende guztiak betetzen ditu arau horiek. Katalanaren kasuan gaztelaniara pasatzea, adibidez. Beraz, beti gaztelaniara ez pasatzeko, arau berriak irakatsi beharko lirateke. Horrek berebiziko eraldaketa ekarriko luke, iraultza soziolinguistikoa.

”

## Proposamenetako bat hezkuntzaren soziolinguistika irakasgai moduan ezartzea da. Zer irakatsiko litzateke?

Gaur egun, herritartasunerako hezkuntza, balioetan oinarritutako hezkuntza, kultura arteko, kulturantzun... dauzkagu, baina ez daukagu hezkuntzaren soziolinguistikari buruzkorik. 2003ko artikulua batean aipatu nuen horren beharra, eta oraindik ere horixe azpimarratzen jarraitzen dut.

Horren beharra ikusten dut Bigarren Hezkuntzan. Lehen Hezkuntzan garrantzitsuena hitz egiteko jarrera da. Eta horretan ari dira. Baina Bigarren Hezkuntzan gurasoek eta irakasleek hizkuntza eredu izateari uzten diote, eta aisialdiak eta komunikabideek hartzen dute lekukoa. Eta hori guztia... gaztelaniaz edo ingelesez izaten da. *Operación Triunfo* da adibiderik itxuragabeena. Katalan batzuek sortu zuten, produktu katalana da, eta katalanez hitz egitea debekatu egiten diete. Horrez gain, ezin da abestirik katalanez kantatu, inoiz ere ez. Berdintasun estatu batean hori? Bost hizkuntza dituen estatu batean? Aisialdiko hizkuntzak gaztelania eta ingelesa dira.

Gauzak horrela, hezkuntzaren soziolinguistika irakasgaiak hizkuntza gutxiaren aldeko jarrerak zein diren erakutsiko liguke. Zein jarrera hartu beharko genukeen egoera zehaztetan eta zein diren hizkuntzarekiko jarrera deuseztatzaileak. Ekolinguistikoki zer jarrera eta erabilera diren positiboak eta zer deuseztatzaileak erakutsiko litzateke.

Pertsona bat leku zehatz batean gaztelaniaz ari bada, erabat aukera pertsonala izango da, baina bestea katalanez ez hitz egitera behartzen du. Behartzen ari da. Beraz, erabilera hori heziera onaren aurkakoa da, deuseztatzailea. Institutuan, gauza bera ikusten dut nire mintegian. Irakasle katalanek gaztelaniaz hitz egiten diote Gaztelaniako irakasleari, nahiz eta irakasle horrek katalanez jakin. Zergatik pasatzen dira gaztelaniara? Bada, hezkuntzaren soziolinguistikan horixe aztertuko litzateke, eta jarrera positiboak eta negatiboak zein

diren landuko litzateke.

Beste modu batera esanda, egoeraren kontzientzia hartzen lagunduko luke, zeren gaztelaniarako aldaketa egiten duten asko ez dira horretaz ohartu ere egiten. Ez dute horren kontzientziarik.

Orain dela 30-40 urte, Irakasle Eskolako irakasle batek, Enric Larreulak, kalkulak egin zituen: zazpi katalan hiztun behar ziren gaztelaniazko hiztun baten aurrean katalanari eusteko.

## Soziolinguistika bera ere, ikasgai moduan, gehiago hedatu behar dela aipatu duzu.

Bai, 1991n, curriculumean aldaketak egitea proposatu nuen, Bigarren Hezkuntzan Soziolinguistika irakasgai sartzeko. Baina ez genuke horretara mugatu behar. Ezinbesteko edo garrantzi handiko irakasgai izan beharko luke Irakasle Eskoletan. Lehen Soziolinguistika irakasten zen, baina, Europaren aitzakiarekin, kendu egin da. Beti daude aitzakiak. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan aritu behar duten irakasleek ikasi egin beharko lukete zer den soziolinguistika eta zer den hezkuntzaren soziolinguistika, gero ikasleei irakasteke. Eta zer esanik ez gainerako ikasketetan ere, denetan irakatsi beharko litzateke, Historian, Zientzia Politikotetan, Soziologian, Zuzenbidean, Giza Zientzietan, Komunikazio Zientzietan, Pedagogian, Psikologia Sozialean... Soziolinguistika ez litzateke izango gauzak ezagutzeko ikasgai bat, errealitatea hobetzeko zerbait baizik.

Era berean, Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean irakatsi beharreko soziolinguistikak ez luke mugatu behar errealitatea ezagutaraztera. Soziolinguistika ez da gramatika, ez da fonetika. Ez dauka objektibotasun hori. Haratago jobehar da, deskribapenetik prozesuen azalpena. Hau da, prozesuak oso garrantzitsuak dira, eta prozesu sozio-kulturalak azaldu egin behar dira. Hizkuntza gutxiak zer mekanismok ezabatzen dituen azaltzen eta ulertzen badugu, hori ulertuz gero, ikasleek errazago ulertuko dute zer-nolako mekanismo-

ak, eragin politikoak eta bestelakoak dauden.

Bigarren Hezkuntzan landu daitezkeen gai batzuk hauek izan daitezke: norberak zein jarrera duen hizkuntza gutxituarekiko, logikoa den jarrera hori eta, hala bada, zenbateraino, hizkuntza bakoitza erabiltzen denean zer-nolako jarrerak agertzen dituen norberak...

### **Beste urrats bat erabilera arau berriak irakastea da.**


Bai, hezkuntza etorkizunera begirako jarduera dela aintzat hartuta, Aracilen ustez irakasleek erabilera arau berriak irakatsi ditzakete. Ez daude idatzita inolako paper edo legetan, baina, hainbat faktoreren ondorioz, jende guztiak betetzen ditu arau horiek. Katalanaren kasuan gaztelaniara pasatzea, adibidez. Beraz, beti gaztelaniara ez pasatzeko, arau berriak irakatsi beharko liratekeela uste zuen Aracilek.

Nik neuk ere hori pentsatzen dut. Horrek berebiziko eraldaketa ekarriko luke, iraultza soziolinguistikoa.

Iraultza hori XIX. mende amaieran gertatu zen lore jokoekin. Debekatu egin zen poesiak gaztelaniaz egitea. Errepublikara garaian bide beretik jo zen, eta, Nova Canció Catalana mugimenduan ere, literatura ez zen ulertzen katalanez ez bazen. Horiek iraultza soziolinguistikoa dira. Baina azken iraultza soziolinguistikoa hiztunen erabilera arauak aldatzea izango litzateke, beti gaztelaniarekin bat egitera jotzen baita. Hau da, hizkuntza batean normala dena, orain anormal bihurtzea da, eta beste hizkuntzan egitea bihurtzen da normal. Hori da erabilera arauak aldatzea.

### **Emaguzu erabilera arau aldaketa baten adibidea.**

Esate baterako, 1896an Angel Guimerá antzerkigileak Ateneuko (Bartzelonako instituzio nagusietakoa) lehen-dakaritza eskuratu zuenean, inaugurazio hitzaldia katalanez egin zuen, lehenengo aldiz. Ez zen inoiz horrelakorik pasatu. Han zeuden guztiak katalanak ziren. Bada, batzuek protesta egin zuten ez zutelako inoiz horrelakorik en-



tzun, alegia, inaugurazio hitzaldi bat katalanez. Gizon hark, egin zuenari esker, erabilera arauak aldatu egin zituen. Eta geroztik pentsaezina da pisu handiko hitzaldi bat katalanez ez egitea.

Azken finean, irakasle batek gela barruan erretzeak heziera txarra adierazten duen modu berean, zergatik ez dugu hartzen heziera txarraren adierazletzat ikasleekin eta gainerako irakasleekin katalanez ez egitea? Zergatik ez dugu hartzen ingurune ekolinguistikoa eraso gisa? Zergatik ez gara hasten pentsatzen guri gaztelaniaz egiten digun bat heziera txarreko pertsona dela?

Hizkuntza bat edo bestea aukeratzea zergatik ez da traizionatzea? Nik uste dut leku eta une batzuetan aukeratzea traizionatzea dela, bereziki hezkuntzaren alorreko profesionalen kasuan. Izan ere, diskurtso ofizialean edo politikoki zuzenean hizkuntza bat edo bestea aukeratzea aukera pertsonala dela pentsatzen da, ez daukala hezkuntzaren alorrean ondorioz, ez etikorik, ez ekologikorik. Zergatik pentsatzen da hori? Euskara mendean hartzen duen aukera bat ingurune soziokulturalaren aurkako eraso da. Etengabe itsasertzean petrolioia isurtzen aritzearen parekoa. Suntsiketa ekintza da. Eta halakotzat jo beharko litzateke.

### **Ikasleen hizkuntzen motxila baliatzea da egiten duzun beste**

### **proposamen bat. Zer da hizkuntzen motxila hori?**

Ikasleek dakizkiten hizkuntzek osatzen dute hizkuntzen motxila. Esate baterako, ikasle baten familiako hizkuntza berberera izan daiteke, baina eskolan arabiera ere ikasiko zuen. Kataluniara etorri, eta katalana, gaztelania eta ingelesa ikasten ditu. Eta, horrez gain, ez daki edo ez da konturatzen, baina frantsesezko eta italierako gauza asko dakizki. Azken batean, gai da frantsesezko 50 hitz ulertzeko, arabieraz idazteko, badaki auzoko txinatarrek gauza bati txineraz nola esaten dioten... Horri guztiari deitzen diogu hizkuntzen motxila, ezaguera linguistikoa horri guztiari.

Ikasleek guk uste dugun baino askoz ezagutza handiagoa daukate hizkuntzen alorrean, eta ez dugu aprobeztatzen. Erabil ditzagun dakizkiten hizkuntza horiek gogoetak egiteko, gauzak alderatzeko, arauen logika ulertzeko... Aprobetxa ditzagun dakizkigun hizkuntzak, aldameneko komunitateak..., dena ingelesa izan gabe. Niri negargarria iruditzen zait portugaldar batek italiar batekin ingelesez hitz egitea.

### **Nolakoa da hezitzaileen jarrera Katalunian? Egin dituzun proposamenak aurrera eramateko prest ikusten al dituzu?**

Katalunian, arrazoi sozialengatik edo dena delakoengatik, irakasle askok

# jordi sole i camardons



ka-  
talana  
ez dute fami-  
liako hizkuntza. Beraz, arazo hori dugu  
hasteko. Ikasten dute, baina indargarri  
bat beharko litzateke prestakuntzaren  
arloan, prestakuntza soziolinguistiko  
handiagoa, alegia. Zeren, gauza bat  
prestakuntza linguistikoa da, nola hitz  
egiten den, gramatika, lexikoa... Eta  
beste bat, prestakuntza soziolinguisti-  
koa, hizkuntza batean hitzegiteak duen  
balioa, garrantzia... hori dena.

Testuinguruak ere asko baldintza-  
tzen du. Irakasle bat Vic-era iristen ba-  
da, edonolako jarrera izanik ere, katala-  
nez hitz egingo du, testuinguruak hor-  
retara bultzatuko baitu. Magrebtarrak  
ere katalanez jolasten dira katean. Al-  
diz, eskolaren %70ek gaztelaniaz hitz e-  
giten duen leku batera iristen bada, irak-  
aslea horretara egokituko da, eta kito.  
Ikasleek gustura onartzen dute gaztela-  
niaz hitz egiten duen irakaslea, euren  
hizkuntza gaztelania baita.

Berez, irakaskuntzako hizkuntza  
katalana da Bigarren Hezkuntzan ere,  
baina, praktikan, irakasleek aukeratzen  
dute zer hizkuntzatan aritu nahi duten.  
Irakasleek urte hasieran ordutegia sina-  
tzen dute, eta zer hizkuntzatan irakatsi-  
ko duten esaten dute. Denek katalana  
jartzen dute. Baina inork ez du ikuska-  
tzen gero, ez da irakurri ere egiten, ez du  
inork sinesten eta ez da betetzen. Klaus-  
troko erabakiak betetzen dira, edo ez;  
ez dago atzetik joango den ikuskatzaile-  
rik. Ikasliburu guztiak katalanez dira,  
baina gero irakasleak erabakitzen du  
eskolak katalanez edo gaztelaniaz  
emango dituen. Irakasleak gai dira ka-  
talanez irakasteko, probak pasatu di-  
tuzte, baina ez dute hori egiten.

Eta, horrez gain, bada beste kontra-  
esan bat ere: sinpatikoarena egiteko,

diskurtso formalak katalanez egin eta,  
gero, gaztelaniara pasatzen dira irakas-  
le asko. Hori guztiz kaltegarria da katala-  
narentzat. Zer ideologia izango du  
ikasleak? Katalana diskurtso aspergarri-  
rako, eta gaztelania une atseginetarako.  
Hori ideologia diglosikoa da. Nahiago  
nuke alderantziz izatea: eskolak gazte-  
laniaz eman, eta sinpatikoarena katala-  
nez egin.

Katedra askatasuna dago hizkun-  
tzaren gaian, eta irakasleei ezin zaie  
ezer esan.

## **Baina ez al da kontraesana, irakaskuntza hizkuntza katalana izanda, gero eskolak gaztelaniaz ematea? Eta are gehiago, horretarako askatasuna edukitzea?**

Bai, hala da. Hezitzaile gisa ikasleen  
aurrean erretzen aritzea bezala izango  
litzateke. Erretzea edo ez erretzea era-  
baki pertsonala da, erretzeko eskubi-  
dea daukagu; baina ez besteei kea bota-  
tzekoa. Kosta da, baina horretara iritsi  
gara, ezta? Mandatariak ados jarri dira  
horretan. Bada, jar gaitezten ados hiz-  
kuntzaren kasuan ere.

Erabaki edo aukera pertsonala dela  
esaten da, baina ez da erabaki neutrala.  
Hezitzaile gisa erantzukizun batzuk di-  
tugu, eta linguistikoki bete egin behar  
ditugu erantzukizun horiek. Beraz, lan  
honetan ezin da onartu aukera perso-  
nal hori, askatasun horrek ondorio ne-  
gatiboak baitakartza. Hizkuntza gutxi-  
tua deuseztatu egiten du, eta, gero, diru  
gehiago behar da normalizaziorako,  
garbitzeko. Hezitzaile gisa, katalana ba-  
dakizula erakutsi eta gero, ez duzu era-  
biltzen? Orduan, instituzioei iruzur egi-  
ten ari zara. Alda ezazu zure jarrera.

## **Nola ikusten duzu katalanaren etorkizuna, edo euskararena?**

Ez lan boluntario antolatutik, ez  
hezkuntza soziolinguistikotik, ezin  
izango dugu hizkuntzaren ordezkapen  
prozesua atzeratu. Gure erronka arlo  
akademikotik kanpokoa da. Politikoa,  
esango nuke. Mendekotasun adminis-  
tratiboa gainditu behar dugu, hau da,

“**Independentzia  
da normalizazioa posible  
egiten duen esparru  
bakarra. Ez dago beste  
esparrurik. Baina prozesu  
hori bera ez da nahikoa.  
Horregatik esaten dut  
independentzia eta  
inteligentzia, biak, behar  
direla. Independentzia  
lortu behar da, baina  
hizkuntza politika egokia  
egiten ere jarraitu behar  
da.**

”

katalan edo euskaldun komunitateak menperatzen dituen eta horiei mugak jartzen dizkien mendekotasun administratibo espainiar hori. Gure hizkuntza komunitateak zatitu egiten ditu, eta berriro soziolinguistikoki integratzea galarazti egiten du. Hortaz, botererik ez baldin badaukagu, gure arteko eztabaidetan arituko gara, baina ez dugu askorik aurreratuko. Botere soziolinguistiko katalana eta euskalduna behar ditugu. Gaur egungo esparruan, ikusezintasuna bultzatzen da, ordezkatzeko prozesua ezkutatu egiten da. Hau da, gizarteko kide gehienak ez dira konturatzen gaztelania euskara eta katalana ordezkatzeko ari dela. Adituek bai, ikusten dute, baina jende gehienak ez.

Aldiz, Espainiako esparru horrek edozein jarrera normalizatzaile errudun bihurtzen du. Katalanaren zinema legea onartu eta biharamunean, espainiar hedabide guztiek auzitan jarri zuten hainbeste kosta zitzaigun eta Katalunia-



ko parlamentuaren gehiengoaren babesa zuten hitzarmena. Horrek hizkuntzarekiko desleialtasuna elikatzen du. Espainiako estatua ematen dituen gauzen mugara iritsi da, eta, orain, atzeraka hasi da; ahalik eta gehien ezabatu nahi ditu lortu ditugun aurrerapen soziolinguistikoak.


Horregatik, nik hiru soluzio ikusten ditut: lehendabizikoa, independentzia; bigarrena, independentzia; eta, hirugarrena, independentzia eta inteligentzia.

Eivissako Bernat Joan i Mari irakasle, idazle eta politikariak doktore tesi bat egin zuten XX. mendean, euren egoera normalizatu zuten Europako 12 hizkuntzaren gainean: norvegiarra, suomiera, errumaniera... Denek modu berean lortu zuten normalizazioa: estatu bat sortuz. Salbuespen bakarra Irlandako gaelikoarena da, zeinak, independentzia lortu arren, atzeraka jarraitzen duen.

Independentzia da normalizazioa posible egiten duen esparru bakarra. Ez dago beste esparrurik. Baina prozesu hori bera ez da nahikoa. Horregatik esaten dut independentzia eta inteligentzia, biak, behar direla. Independentzia lortu behar da, baina hizkuntza politika egokia egiten ere jarraitu behar da.

Urte asko daramatzat hau esanez, eta garbiago ikusten dut urtetik urtera: askoz errazagoa da Katalunian independentzia lortzea hizkuntza normalizazioa lortzea baino. Askoz ere errazagoa. Hizkuntza normalizazioa independentzia baino askoz ere beranduago lortuko dugu.

Baina independentzia lortzen ez badugu, egoera urtu egingo da. Gero eta gauza gehiago jarriko dituzte zalantzan. Azpian dagoen hizkuntza jartzen da zalantzan beti, beti, beti. Askoz errazagoa da hizkuntza nagusian jarraitzea, baldin eta ez badaukazu hizkuntza gutxitua ezariko edo proposatuko duen estatu bat, egoera horri amaiera emango dio. Ezin dugu militanteak izan mendez mende. Militante izaera salbuespen egoera bat da, ez betierekoa.



**Jendeak hizkuntzarekiko duen jarrera interesatzen zait. Katalanaren errealitate sozialari buruzko erakusketa batean, castell bat erabili genuen hori adierazteko: kolore askotako jendea agertzen zen, eta kolore bakoitzak hizkuntzarekiko jarrera adierazten zuen. Gehienak behean zeuden, katalanen % 40. Horiek, normalean, gaztelaniaz hitz egiten badiete, gaztelaniara jotzen dute. Tartean, katalanez ez dakitenak, berdin zaienak, eta abar zeuden. Eta goi-goian, katalan hiztunen % 7. Horiek ez diote sekula uzten katalanez egiteari. Gutxiengo dira.**

## Oh Happy Day!

Ikasleek musika eta dantza ikas ditzaten aldi berean.

Ana Elorzak urteak daramatza musikaren eta abesbatzen munduan. Telebistako hainbat musika programatan parte hartu izan du (prestatzaile musikala izan da Antena 3ko *La batalla de los coros* programan, eta ETBko *Oh Happy Day!* saioan talde bat prestatu eta antolatu du). Bigarren Hezkuntzako musika irakasle ere bada, eta *Oh Happy Day!* gisako lanketak egiten ditu ikasleak motibatzeke asmoz.



Ana Elorza, Hernaniko institutuko musika gelan.

Bigarren Hezkuntzan eskaini ditut *Oh Happy Day!* gisako saioak, eta ongi funtzionatzen dute, beraiek ezagutzen dituzten kantuak direlako. Nerabezaroa adin zaila da, baina ongi sartzen dira, beraien interesetatik abiatzen direlako. Gaurko gazteek oso gustuko dituzte irudia eta musika, eta erakarri egiten ditu horrek.

Frogatua dut abesti mota horrekin ikasleak gusturago aritzen direla, eta gogo onez sartzen direla musika ikasgaietan. Abestiak, oro har, XX. mendekoak eta modernoak dira. Euskal abesti tradizionalak ere lantzen dira, baina ukitu modernoa eta gaurkotua eskaini behar zaie, ikasleentzat errazagoak eta gertukoagokoak izateko.

### Kantuarekin batera dantza

Dantzaren arloan, koreografiako pauso edo mugimendu errazak ikasten

dituzte, kantuarekin batera aritzeko. Beraz, oinarria kantua da, baina mugimendu batzuk eranstean zaizkio.

Normalean, ikasleen artean dantza egiteko prest daudenak agertzen dira, eta, gainera, beraiek izaten dira iaioenak koreografia prestatzerakoan, zer pauso eman esatean eta horrelakoetan, protagonista sentitzen dira. Hori guztia garatzen uzteak balio handia du heziketan.

### Kantuaren parametro guztiak lantzen dira:

- *Hizkuntza*. Kantuak hainbat herrialdeetatik jasotzen direnez, hizkuntza ugari erabiltzen dira. Egia da ingelesa dela kantua modernoetan nagusitzen dena, baina beste hainbat hizkuntzakoak ere abesten ditugu. Euskarazkoak ere ugari ditugu.

- *Aboskera*.



-*Arnasketa*. Oso garrantzitsua da.  
 - *Musika altuera*. Beraiek egokitzten dira abestien altuerara. Adin horietan, LHko hirugarren zikloan edo DBHko lehenengo zikloan, aldaketa nabarmenak izaten dituzte ahotsean. Neskek eta mutilek, gainera, adin desberdinetan egiten dituzte ahots aldaketa horiek, eta kontuan hartu behar da hori guztia. Halakoetan, bakoitzari bere ahotsa ezagutzen eta dagokion erregistroan abesten laguntzen zaio. Teoria batzuek diotenez, aldaketa garai horietan gatzetxoek ez dute abestu behar. Nik, aldiz, garai horietan ere abestu egin behar dela pentsatzen dut; gutxiago, agian, baina lagundu egin behar zaie beren altuera ezagutzen, gustura jardundezaten. Izan ere, nahiz eta hainbeste ez abestu, besteei lagun diezaietkete dantza egiten, antolatzen eta beste hainbat gauza egiten.

-*Erritmoa*.

-*Ñabardurak*. Noiz kantatu behar den ozenago, noiz leunago edo lotuago, noiz moztu behar den, eta abar.

Ikus daitekeenez, oso esparru aberatsa da kantuarena. Liburua erabiliz edo partitura baten bidez landu daiteke, teoriaren helburua zein den ulertzen, baina, praktikan, kantuaren bidez, gutzia lantzen da.

## 12-16 urte: garai aldakorra

Maila horietan, ikasturte bakoitza desberdina da. Irakaslearen egitekoa ikasleen interesa nola sortu edo motibatuzko zer egin jakitea da. Izan ere, 12 urtetik 16rako bitarte horretan, lotsa ematen die abesteak, baina, ongi estimulatzen badituzu, egiten dute. Nire ustez, denok balio dugu abesteko, edozein adinetan, eta, horren belarri ona ez badugu ere, taldeari beste hainbat gauzatan lagun diezaiokegu: dantzan, musika jartzen, arlo teknikoan, eta abarretan.



## Irakaslearen egitekoa

Beldur eszenikoak gainditzen lagundu egin behar zaie ikasleei. Hasieratik ikuskizunerako prestatzen badituzu, egoera hori lantzen baduzu, agertokian aritzeak zer adierazten duen bizi badute, dituzten beldurrak gainditzen lagunduko zaie, eta estimulatu egingo dira. Jakina da nerabezaroa adin berezia dela, baina, tentuz lantzen bada eta taldean egiten bada, samurrago pasatzen dute, eta beraien estimulua handiagoa da. Horregatik, bakarlariekin lana landu badaiteke ere, batez ere taldeko lana lantzen da.

## Kontuan hartzeak

- Komenigarri da abesti batzuk irakasleak berak aukeratzea, eta ikasleei zer landu nahi den eta zertarako erabiliko den azaltzea. Ona da beste kanta batzuk, aldiz, ikasleek proposatzea, nahiz eta horiei egokitzapen batzuk egin behar harko zaizkien.

- Taldeak 10 ikasletik 20ra bitartekoak izatea komeni da. Irakasle bakarrentzat 20 kideetik gora izateak zaildu egiten du lana.

- Lan jarraitua egitea komeni da. Ikastetxe batean urte batzuk badaramatzazu, ikasleak ezagutzeko aukera

izango duzu, eta giroa sortzen joan zintezke. Proposamenak egin ditzakezu, probatu, eta, horrela, ikuskizun polita egitera hel zintezke. Ikasleekin ez duzu lehia lantzen, baina ahalik eta ikuskizun ederrena egiteko erronka har zenezake.

Ikuskizun hori prestatzeko, *casting* moduko bat egin dezakezu ikasleekin. Horrela, nahi duenak abestu egingo du, beste batek musika joko du, erritmoa eramango du beste batek, edo dantza egingo du... Bakoitzak gustura sentitzen den horretan jardun dezake.

Abestien oinarri musikala baldin baduzu, horrek asko lagunduko dizu haren gainean lantzen, abestiak egokitzten, eta abarretan.

Nire ustez, metodologia berri bat eskain liteke estilo horren bidez. Bere garaian txirula landu zen gisara, zergatik ezin da sortu horrelako metodo bat adin tarte batentzat, abesti modernoak edo modernizatuak erabiliz?

Izan ere, *Ob Happy Day!* saioak 10-14 urte bitarteko ikasle askok eta askok ikusten zituzten. Uste dut horrek guztiak zerbait adierazten duela interesen ikuspegitik. ●

## ***Bikotekaka Irakurtzen***, parekoen arteko ikaskuntza bultzatzen duten ikastetxe euskaldunen sarea<sup>1</sup>

***Bikoteka Irakurtzen*** programak 2009-2010 ikasturtean ekin zion bere ibilbideari, berritzeguneetako aholkularitza zerbitzuen bidez, lankidetzako ikaskuntzaren inguruan eta, zehazki, *Llegim en parella* programaren inguruan interesa agertu zuten Irun eta Ordizia aldeko ikastetxeen sare bat osatu ondoren. *Llegim en parella* programa abian da Katalunian, 2006-2007 ikasturteaz geroztik. Bai ikastetxeek eta bai aholkularitza zerbitzuek erakutsi zuten interesa bi ildo hauen inguruan sortu zen: alde batetik, irakasleek nahiz ikastetxeek gero eta interes handiagoa zuten lankidetzako metodologietan prestatzeko, eta ikasgeletan metodologia horiek praktikan jartzeko. Eta, bestetik, programa beren hizkuntzetan garatu zuten (katalanez Kataluniako eta Balear Uharteetako sareetan, eta gaztelaniaz, berriz, Aragoiko sarean) eta irakurriaren ulermena landu zuten beste ikastetxe batzuen sareek lortutako emaitza positiboek ere interes hori indartu egin zuten.



Erreneriako Koldo Mitxelena ikastetxean

Horregatik sortu zen Euskadiko ikastetxeen sarea; horregatik, eta baita *Bikoteka Irakurtzen* programa ikastetxeetan azaleratzen ari ziren beharretara ondo egokitu zelako ere. Izan ere, aurreko ikasturtean egindako ebaluazio diagnostikoekin alderatuta, argi ikusi zen hizkuntzaren eta irakurmenaren esparruan zenbait alderdi hobetu beharra zegoela.

*Bikoteka Irakurtzen* programaren barnean, askotariko materialak eta prozedurak sartzen dira, eta metodologia inklusibo berritzaileak erabiltzeko aukera ematen dute guztiek, ikasgeletan aniztasunaren tratamendua sustatzeko, hizkuntzaren irakaskuntzan jada erabiltzen diren didaktikak aberastuko dituzten didaktika berriak garatzeko, eta ikasleen lankidetzako gaitasuna

sustatzeko; horren bidez, ezagutzaren gizarterako nahitaezkoak diren trebetasun sozialak eta jarrera demokratikoak garatuko dira eta, gainera, eskolako zereginetan familien esku-hartzea sustatuko da.

Kontzeptuen ikuspegitik, giltzarri diren hiru alderdi hauetan oinarritzen da programa: parekoen arteko tutoretza, familiak irakurketaren euskarri bihurtzea eta irakurriaren ulermena.

### **Parekoen arteko tutoretza, desberdintasunetatik ikastea**

Parekoen arteko tutoretza (peer tutoring) lankidetzako ikaskuntza metodo bat da, bikoteen osaketan oinarritzen dena, rolen banaketa batetik (tutorea eta tutoretzapekoa) ondorioztatutako erlazio asimetriko bat, eta ezaguna

<sup>1</sup>Marta Flores Coll, Bartzelonako Universitat Autònoma Oinarrizko Psikologia, Psikologia Ebolutibo eta Hezkuntza Saileko ikerketa ataleko bekaduna.

David Duran Gisbert, Bartzelonako Universitat Autònoma Oinarrizko Psikologia, Psikologia Ebolutibo eta Hezkuntza Saileko irakaslea. Parekoen arteko ikaskuntzari buruzko Ikerketa Taldeko koordinatzailea (<http://ice2.uab.cat/grai/>).

eta partekatua den helburu komun bat ardatz hartuta: irakurmena hobetzea; irakasleak planifikatutako erlazio esparru batetik abiatuta lortuko da hori (Duran eta Vidal, 2004). Egituratutako interakzio gidoi bat abiaburutzat hartuta, bikote horretako bi kideek ikasi egiten dute. Tutoretzapekoak, kide duen tutore horrengandik laguntza egokitua eta etengabea jasotzen duelako; eta tutoreak, irakastea oso ikasbide ona izan daitekeelako (Cortese, 2005). Beraz, ikasgeletan eta ikastetxeetan ditugun maila desberdinei probetxu pedagogikoa ateratzea da kontua, eta, horregatik, hezkuntza inklusiborako metodologia eraginkortzat hartzen da parekoen arteko tutoretza (Topping, 1996).

Metodologia hori oso konplikatua ez bada ere, parte-hartzaileei, hots, maisu-maistrei, ikasleei eta familiei, hasierako prestakuntza egitea eskatuko die. Alde batetik, parte hartzen duten maisu-maistrek programaren oinarriak buruzko prestakuntza jaso beharko dute. Horrez gain, ondo jakin beharko dute zer egin behar den ikastetxeetan eraginkortasunez gara dadin, eta, horretarako, prestakuntzaren zati bat aurrez aurre jaso beharko dute (Duran eta Flores, 2008); aurrez aurreko hiru saioen eta ikasgela birtual baten bidez antolatzen da prestakuntza hori, eta, ikasgela birtual horretan, programaren jarraipen egokia egiteko jarraibideak eskaintzeaz gain, abian jartzerakoan sortuko diren zalantzak planteatuko dira, eta landu dituzten materialak eskainiko dizkiote elkarri. Horrela, ikasturtean zehar eta lankidetzan oinarrituta, programa gauzatu duten ikastetxeen sarean sartuko dira parte hartzen duten maisu-maistrak. Programa ezartzen ari diren maisu-maistrek elkarrekin ikastea lortu nahi da horren bidez, beren jarduerari buruzko gogoeta eginez, eta, horrekin batera, ikastetxeek ere elkarrengandik ikastea lortu nahi da. Horre-



Irungo Belaskoenea ikastetxean.

gatik, ikasleen artean ez ezik irakasleen eta ikastetxeen artean ere parekoen arteko ikaskuntza bultzatzea da helburua.

Seme-alabekin etxean irakurketaren esparruan tutore lana eginez beren gogoz parte hartu nahi duten familiei ere hasierako prestakuntza emango diete irakasleek, eta programaren oinarriak eta rol bakoitzean garatu behar diren jarduerak azalduko zaizkie prestakuntza horretan. Horren ondoren, irakurketa saioak berak hasiko dira, 30 minutukoak, ikasgelan bertan nahiz boluntario diren familien etxeetan; guztira, 24 saio 12 astean.

### Irakurriaren ulermena, eskolako arrakastarako gako

Gauza jakina da oso modu erabakigarrian sustatzen duela irakurmenak pertsonaren autonomia. Irakurlearen eta testuaren arteko interakzio prozesu bat da, non, prozesu horretatik abiatuta, irakurlea bere irakurketa gidatuko duten helburuak asetzen saiatuko den (Solé, 1992). Testu idatziak ulertzeko eta erabiltzeko nahiz horiei buruz gogoeta egiteko eta berorietan modu pertsonalean inplikatzeko gaitasuntzat har dezakegu irakurmena, horrela, norberaren helburuak lortzeko, norberaren ezaguerak eta gaitasunak garatzeko eta gizartean parte hartzeko (PISA/OCDE, 2009).

Testuen ulermenerako, Solé-ren iritziz (1992), beharrezkoak diren estrategiek gidatuko dituzte programan bikoteen barneko elkarreragina egituratzeko erabiltzen diren Jarduera Orriak: irakurketaren asmoak ezagutzeak, aurre-

tiazko ezaguerak aktibatzeak, hipotesiak lantzeak, funtsezkoa den informazioa kokatzeak, berorren ulermen partziala egiaztatzeak, aurretiaz dituen ideiak testuaren garapenaren aurrez aurre jartzeak eta esanahiaz jabetzen joateak; hori guztia, jarrera kritikoa eta konstruktiboa hartuta eta, aldi berean, ondorioak atereaz eta balioespenak eginez, testua sakon eta kritikoki ulertzea lortzeko.

Beraz, irakasleek, ikasleen inguruarekin lotutako askotariko testuak abiapuntutzat hartuta eta printzipio horiei jarraituta, bikoteen harremanak egituratuko dituzten Jarduera Orriak landuko dituzte, tutoreak eta tutoretzapekoak zer egin behar duten zehazteko. Ikus dezagun, bada, interakzio hori nola antolatzen den saioan.

Testua irakurri aurretik, aurretiazko jarduerak gidatuko ditu tutoreak, eta testuaren ezaugarrien azterketan, hipotesien iragarpenean eta tutoretzapekoaren aurretiazko ezagueren aktibatzean oinarritzen dira jarduera horiek. Horren ondoren, testua ozen irakurtzen hasiko dira: lehenengo, tutorea; gero, biek batera irakurriko dute, baina tutorea pixka bat aurretik joaten saiatuko da, erritmo eta doinu egokia markatzeko; eta, azkenik, tutoretzapekoak irakurriko du, PPP teknikari (*Pause, Prompt, Praise*) jarraituz (Whendall eta Colmar, 1990). Akatsen bat egiten badu, geldialdi bat egin eta tutoretzapekoari abisu emateko (*Pause*) aukera ematen dio teknika horrek; handik se-gundo batzuetara, egindako akatsaz jabetzen ez bada, lorratz edo pista bat emango dio tutoreak (*Prompt*); eta aka-



Deusto LHI-técnica ikastetxean

tsa zuzentzen duenean, irakurtzen jarraitzea animatuko du (*Praise*).

Irakurketan oinarritzen diren jarduerak egin ondoren, saioaren bigarren zatian ekingo zaio: hasieran adierazitako hipotesiak egiaztatuko dira saio horretan, eta irakurritako testuaren edukiari buruzko galderei erantzungo zaie. Saioa amaitzeko, testuari buruzko jarduera osagarriak egingo dira, egin beharrekoa bikoteen lan eritimoaren arabera amaitzeko aukera ematen duten jarduera osagarriak. Hamabostean behin, autoebaluaziorako jarraibide baten bidez, bikoteek beren ikaskuntza prozesuaren kontzientzia hartuko dute, beren aurrerapenak balioetsiko dituzte, izan dituzten zailtasunei buruzko gogoeta egingo dute, eta hurrengo saioetarako hobetzeko proposamenak egingo dituzte.

Zenbait saio egin dituztenean, tutore lana betetzen ari diren ikasleei eskatuko zaie, zehazki, beren tutoretzapekoentzat pare bat Jarduera Orri lantzeko, saioetan irakasleek eman dizkieten ereduak jarraituz, bai formaren aldetik eta bai edukiaren aldetik. Orri horiek lantzeko, kontuan izan beharko dituzte beren tutoretzapekoen interesak eta zaletasunak, horien bidez irakurketa sustatzeko eta ulermen jarduerak, irakasleen gidaritzapean eta haien aholkuei jarraituz tutoreek landu dituzten jarduera horiek, egitera bultzatzeko. Zalantzarik gabe, ikasmaterialak egitea oso ikasbide polita da.

Horrez gain, irakasleek badituzte zenbait ebaluazio tresna ere, programan bikoteen bilakaeraren jarraipena egiteko eta, amaieran, bikote bakoitzak egin duen prozesua balioesteko.

Horrela, bikote bakoitzak eta, aldi berean, ikasle bakoitzak egin duten ikasketa prozesua balioesteko nahiko informazio fidagarria izango dute irakasleek, abiapuntutzat hainbat elementu hartuta: bikoteen behaketarako erregistroa, irakasle bakoitzak testuinguruaren eta sortzen diren beharren arabera egokitu dezakeen erregistro hori, tutoretza saioetan ikasleek landutako Jarduera Orriak, bikotearen autoebaluaziorako jarraibideak, familiako tutoretza saioen egunerokoa, tutore diren ikasleek landutako orriak edota irakurriaren ulermena balioesteko hasiera eta amaierako probak.

### **Eskolako zereginetan familiek duten esku-hartzea**

Familiek betetzen duten funtzioa ere oinarri-oinarrizkoa da programaren barnean; izan ere, ikastetxean parekoen artean tutoretza saioak garatzearekin batera, irakasleek tutoretza saioak etxean egiteko gonbita egingo diete familiei, horrela, haur horiek beren ikaskuntza indartu dezaten. Azterlan ugari argi erakutsi dute familiek modu aktiboan esku-hartzeak beren seme-alaben eskolako arrakastan zer-nolako zerikusia duen (Sénechal, 2006). Martínezek (1992) dio, familiek ikastetxean modu aktiboan parte hartzen dutenean, familia horietako seme-alaben eskola-errendimendua handitu egiten dela, eta ikastetxean, berriz, irakaskuntzaren kalitatea hobetu egiten dela.

Familiek esku hartzeko borondatea azaldu arren, irakasleek eta ikastetxeek badakite ez dela gauza erraza. Ikastetxeek familiei proposatu ohi dizkieten jarduerak familiak ikastetxera “joate-

an” oinarritzen dira askotan; baina bada oraindik aztertu gabeko ildo bat, horien osagarri izan daitekeena: familiak beren seme-alabei etxean laguntza emateko prestatzea, ikaskuntzan aurrera egin dezaten. Horrez gain, beharrezkoa dirudi familiei beren seme-alaben ikaskuntza nola sustatu jakiteko jarraibideak emateak, eta horixe iradokitzen du hainbat azterlanek (Al-Momani et al., 2010). Horregatik, hain zuzen, *Bikoteka Irakurtzen* programak garrantzi handia ematen dio familien parte-hartzeari, eta, lan hori etxean garatzeko, ondo egituraturako eta zehaztutako gidoi bat eskaintzen du. Irakaslearen zeregina familien partaidetza handia lortzea izango da, eta, familien parte-hartze horrek dituen eragin positiboak argi eta garbi izanda, ikaskuntzak hobetzeko etxetik laguntzea beharrezkoa dela ikusaraztea familiei.

### ***Bikoteka Irakurtzen sareko lehen emaitzak***

Irakasleen eta ikastetxeen sareko lanak abagune ederra eskainiko du parekoen artean (irakasleen eta ikastetxeen artean) ikasteko eta, aldi berean, praktikari buruz gogoeta egiteko eta, ikerketa eta ekintzarako egitura batean, programa garatzeko eta hobetzeko. Ildo horretatik, 2009-2010 ikasturtean, programa abiaraztearekin batera, ikerketa bat egin zen Euskadiko ikastetxeen sarean, lagintzat Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 340 ikasle hartuta (Moliner, Flores eta Duran, 2011). Ikaslearen irakurmenean *Bikoteka Irakurtzen* programak zer-nolako eraginak zituen ikertzeko planteamendua egin genuen, bai ulermena eta bai irakurle gisa bakoitzak bere buruaz zuen irudia kontuan hartuta. Zenbait autorek diote lankidetzako ikaskuntzak norberak bere buruaz duen iritzia hobetzeko zeharkako programa gisa balio dezakeela (Miller eta Morgan, 2006).

Horretarako, bi dimentsio horietan *aurre-test* eta *postest* probak egin ziren, eztabaida taldeak osatu ziren parte hartu zuten ikaslearen artean, erdi egitu-

ratutako elkarriketak egin zitzaizkien programa praktikan jarri zuten maisu-maistrei, eta galdeketa egin ziren, gogobeteta gelditu ziren jakiteko eta irregularitasunak hautemateko.

Lortu ziren emaitzak pozgarriak izan ziren, ikasle guztiek egin baitzuten hobera euskarazko ulermenean, tutoretza mota eta betetako rola edozein izanik ere. Aurretiaz beste hizkuntza batzuetan egin diren azterlanekin eta parekoen arteko tutoretzari buruzko ikerketen emaitzekin bat datozen emaitza horiek, eta argi utzi dute desberdintasunetatik abiatuta ikasteko aukerak sortzeko gai den metodologia horren eraginkortasuna.

Aztergai hartu genuen gure bigarren aldagaiari dagokionez, hau da, irakurle gisa ikasleak bere buruaz zuen irudiari dagokionez, lortutako emaitzek berretsi egin dute, neurri batean, espero genuena. Elkarren arteko tutoretza horretan parte hartzen duten ikasleengan, norberak bere buruaz duen iritziak estatistikoki hobera egiten du, modu nabarmenean, eta hori are esanguratsuagoa da tutoretza finkoan tutore lana betetzeko aukera izan duten ikasleengan. Aldiz, modalitate finkoaren barnean, tutoretzapekoen lekua bete duten ikasleengan arlo horrek gorra egin badu ere, gorakada hori ez da izan horren esanguratsua. Idazle gisa bakoitzak bere buruaz duen iritziari buruz aurrez egindako lanekin (Duran eta Monereo, 2008) bat datorren emaitza hori, agian, aldatu egingo litzateke, tutore rola bete duten ikasleek ere ikaskuntza prozesu bat bete behar izan dutela ulertaraziko baliekete irakasleek ikasleei (hasierako prestakuntzaren bidez), eta Jarduera Orrien prestaketan tutoretzapeko funtzioa bete dutela ulertaraziko baliekete.

Sakon aztertu ziren bi aldagai horiez gain, azterlanak argi erakutsi du parekoen arteko tutoretzak beste hainbat dimentsiotan egin dezakeen ekarpena; esate baterako, trebetasun sozialetan, ikaskuntza prozesuko inplikazioan, barneratutako erantzukizunean... Horiek guztiak aipatu dituzte parte-har-

tzaileek, eta izugarriko garrantzia dute guztiok erronkatzat hartu dugun kalitatezko hezkuntza horretan.

Emaitza horiek ikusita, espero dugu irakasle eta ikastetxeak animatuko direla ikasleen bitartekotza ahalmena mobilizatzeko ikasleen desberdintasunetatik abiatzen diren lankidetzako ikaskuntza metodoak? parekoen arteko tutoretza, adibidez? txertatzera, elkarri laguntza eta euskarria emanez eta irakasleen gidaritzapean, elkarrengainak ahalik eta kalitate handienekoak izan daitezten. Horrez gain, irakasleen eta ikastetxeen sareko lana, parekoen arteko prestakuntza tresna izateaz gain, iraunkortasunaren ikuspegitik berrikuntzak egiteko lagungarri izango dela eta, epe ertainera, ikastetxeetako ohiko jarduera bihurtuko dela espero dugu. ●



Etxean, bikoteka irakurtzen.

### Erreferentziak

- Al-Momani, I. A., Ihmeideh, F. M., & Naba'h, A. M. A. (2010). Teaching reading in the early years: Exploring home and kindergarten relationships. *Early Child Development and Care*, 180(6), 767-785.
- Cortesse, C. (2005). Learning through teaching. *Management Learning*, 36 (1), 87-115.
- Duran, D. eta Flores, M. (2008). Xarxa Llegim en parella, centres que treballen junts per introduir innovacions educatives. *Perspectiva escolar*. 324, 23-31.
- Duran, D. eta Monereo, C. (2008). The Impact of peer tutoring on the improvement of linguistic competence, self-concept as a writer and pedagogical satisfaction. *School Psychology International*. 29(4), 481-499.
- Duran, D. eta Vidal, V. (2004). *Tutoría entre iguales. De la teoría a práctica*. Barcelona: Graó.
- Martínez, R.-A. (1992): La participación de los padres en el centro escolar: una forma de intervención comunitaria sobre las dificultades escolares. *Bordón*, 44 (2), 171-175.
- Miller, D. eta Morgan, T. (2006). Positive self-worth is not enough:

some implications of a two dimensions model of self-esteem for primary teaching. *Improving schools*. 9(1), 7-16.

- Moliner, L., Flores, M. eta Duran, D. (berrikusten). Efectos sobre la mejora de las competencias lingüísticas y la autoimagen lectora a través de un programa de tutoría entre iguales. *Revista de Investigación Educativa*.
- PISA/OCDE. (2009). *Competència lectora: marc conceptual per a l'avaluació PISA 2009*. Barcelona: Kataluniako Generalitatea.
- Sénéchal, M. (2006). *The effect of family literacy interventions on children's acquisition of reading from kindergarten to grade 3*. National Center for Family Literacy.
- Solé, I. (1992). *Estrategias de lectura*. Barcelona: Graó.
- Topping, K. (1996). *Effective Peer Tutoring in Further and Higher Education*. Birmingham: SEDA Paper.
- Whendall, K., & Colmar, S. (1990). Peer tutoring in low-progress readers using pause, prompt and praise. In H. Foot, M. Morgan, & R. Shute (Eds.), *Children helping children* (pp. 117-134). Chichester: John Wiley and Sons.

## Sarean

### EAEko HH eta LHko Eskola Publikoko XXX. topaketak

SAREAN Elkartek apirilaren 7an Donostiako Irakasle Eskolan XXX. TOPAKETAK burutu ditu. SAREANek EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako 178 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere harremanak eta elkarlana bultzatzea dira, nagusiki ikastetxeen eta sistemaren antolakuntza arloari dagokionean.

Jardunaldi hauetan nagusiki zuzendaritza esparruan eta ikastetxeko aholkularitzan dabilzan kideek hartu dute parte, baina beste Topaketetan bezala, guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza Administrazioiko kideen ekarpenak ere jaso ahal izan ditugu.



#### Eskolako aniztasuna kudeatzen

Jardunaldietako aztergai nagusia eskolako aniztasuna izan da. Aniztasuna aipatzen dugunean argi daukagu diferentziei buruz ari garela. Guztiok desberdinak gara eta Hezkuntza Sistemak aintzak hartu behar du aniztasun hori; izan ere, pertsona ororen gaitasunak erabat garatzeko aukera eman behar digutela uste dugu.

Kontuan hartu behar dugu gizarte anitzean bizi garela eta ikastetxeek errealitate hori islatu behar dutela. Gure ikasleen garapena, neurri handi batetan, lau multzo nagusitan sailkatzen den aniztasunaren trataeraren ondorioz lortzen da:

- Genero aniztasuna.
- Gizarte eta ekonomiako aniztasuna.
- Kultur aniztasuna
- Gaitasun pertsonalen aniztasuna

Ikastetxe publikoetan ibilbide luzea daukagu aniztasunaren trataera

egokia lortzeko ahaleginak egiten eta urratsak eman dira, baina, esparrua oso zabala dela jakinik, oraindik lan handia geratzen zaigula uste dugu. Horregatik SAREAN Elkarteko jardunaldi hauetan “aniztasunaren kudeaketa” aztergai bihurtu dugu, elkarlanaren bidez proposamenak gauzatzeko gai izango garelako ustetan.

#### Adituak aniztasunaren aurreana

Jardunaldien lehen zatian, Lourdes Iriarte eta Marisol Uribe andereak aritu dira **“Inklusiorako lidergoa eta eskola antolaketa”** izenburu duen hitzaldiarekin. Hezkuntza esparruan duten eza gutza zabalak ematen dien eskarmen-tuaz baliatuta aniztasunari era egokian erantzuteko, eskolak behar duen antolaketa aztertu dute. Hona hemen gurekin konpartitu dituzten ideia batzuk:

Inklusio egoera ematen da eskola komunitate osoa, gurasoak, ikasleak,

irakasleak eta beste eragileak, proiektu bereberko partaide sentitzen direnean. Eskolak denen artean eta denontzat egina egon behar du.

Apustu honetan arrakasta lortzeko ikastetxeko zutabe batzuk errebisatu behar dira: kultura, politika, praktikak. Gure eguneroko lanean errotuta eduki behar dugun kontzeptua: “ ikasle bakoitzak balioa baduela”.

Zuzendarien Mintegietako saioetan, ikastetxeetako hainbat zuzendarik inklusioaren ikuspuntutik egindako aportazioak ere aurkeztu zizkiguten Lourdesek eta Marisolek: alde batetik arrakasta eta antolaketako gakoak eta bestetik zuzendaritzaren funtzioa.

Martxan abiatzeko, eskoletan diagnostiko txiki bat egitea proposatzen dute:

- Inklusio helburua lortzeko trabak identifikatzea

- Identifikatu gure “palankak”, hau da, inklusioa erretzuko duten tresnak.

Sarrerako hitzaldia oso ondo baloratu da partaideen aldetik. Bertan azaldu diren proposamenak zein galderak hausnarketarako puntu garrantzitsuak izan direlako

Ondoren, ekitaldiaren zatirik garrantzitsuena burutu da, hau da, lan-taldearen jarduna. Bertan, Topaketetako partaideek, eskolako aniztasuna ikuspuntu desberdinetatik aztertu dute:

- Legeak dioena gaiaren inguruan: Euskal Eskola Publikoaren legea, LOE, eta indarrean dagoen lan hitzarmena.

- Ikastetxeetan gaur egun ditugun baliabideekin egiten duguna.

- Ikastetxeen Zuzendaritzak egiten duen antolaketaren garrantzia aniztasunari dagokionez.

- Beharrak kontuan hartuta aniztasunari erantzun egokia emateko proposamenak

Lau lan-taldetan eztabaida aberatsa sortu da eta denetan azpimarratu da eskolaren helburu nagusia, ikasle guztiei

lor dezaketen garapen handiena esku-ratzeko aukera ematea dela. Beraz, Eskola, ikasleen beharretara egokitu behar da.

Eskola Publikoa harro sentitzen da arlo honetan egindako lanagatik etaildo beretik jarraituko du baina helburu hau lortzeko, Administrazio eta Gizarte osoaren inplikazioa ezinbesteko baldintza jotzen dugu.

## Besteengandik eta besteekin ikasten

Gaiak interesa duela garbi ikusi da partaide kopurua, 115 irakasle, eta azaldu diren aportazioak kontuan hartzen baditugu.

XXX. Topaketen partaideek, jardunaldian izandako lanketaren emaitza bezala, ondorio nagusi hauek bildu dituzte:

1. Aniztasunaren inguruan, aurrerapauso handiak eman dira eskoletan, baina oraindik hobetzeko zeregin ugari dago.

2. Gizartean eta eskoletan, inklusiorako bideak sendotzearen inguruko sensibilizazioa landu behar da.

3. Maila teorikotik praktika egokietara pasatzeko oztopoak identifikatu eta euskarriak indartu behar ditugu.

4. Eskola Publikoan, ikasle guztien arrakasta lortzeko proiektu interesgarriak burutzen ari dira. Praktika on horiek zabaltzearen beharra ikusten da.

5. Ikastetxeko antolakuntza eta funtzionamendu guztia komunitateko aniztasuna kontuan harturik egin behar da.

6. Irakasleen jarrera eta lan egiteko era ikasleen beharrei erantzuteko egokiak izan behar dute, gelako elkarlan giroa sortuz eta jarrera aktiboak bultzatuz.

7. Ikaslearen testuinguruak bere ikasketa prozesua baldintzatzen du, ondorioz familia eta inguruko gizarte eta kultur zerbitzuen elkarlana behar-beharrezkoa da.

8. Nabaria da Hezkuntza Sailaren erantzukizuna, giza eta denbora baliabideak jartzen, formazioa ematen eta jarraipena egiten.

Jakinaren gainean gaude gai honetan esparru guztiak garrantzitsuak direla eta gero eta arrakasta gehiago lortzeko denon ahalegina batu behar dela. Gizarteari eta Administrazioari adierazi nahi diegu Eskola Publikoa prest dagoela bere lanarekin jarraitzeko beti ere denon bultzadarekin.

## Hezkuntza Sailak zeresana du

Jardunaldiei amaiera emateko Hezkuntza Sailaren ordezkaria izan genuen.

Cándido Hernandez jn. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaria, Aniztasunaren inguruan Hezkuntza Sailak duen ikuspuntua azaldu zigun esanez Departamenduarentzat lehentasunezko arloa dela eskola inklusiboa eta bide horretan ikastetxeek ohiko egitura mugiarazi behar dutela, aniztasunaren traera, metodologia eta prestakuntza aztertuz.

Hernandez jaunak azpimarratu zuen aniztasunari eman behar zaion erantzuna talde-lanean oinarritzen dela.

Amaitzeko, Administrazioaren ordezkariak esan zigun ikastetxeetan dugun indarra neurtu eta lehentasunak ipini behar ditugula prestakuntza-berrikuntza proiektuak aukeratu eta diseinatzekeo garaian.

**XXX. Topaketetan** parte hartu dugunok Euskal Eskola Publikoaren partaide garen aldetik antzinatekin egin dugu aniztasunaren aldeko apostua eta argi daukagu etorkizuneko gizarteak hori duela oinarri. Norabide horretan **SAREAN Elkarteak** ahalegin guztiak egingo ditu **Hezkuntza Sailarekin** elkarlanean aritzeko. ●

### SAREAN Elkarteak

2011ko apirila



## Behar bezala eramaten al dute haurrek motxila



Duela gutxi arte oso garrantzi gutxi eman izan zaio haurren gorputz hezkuntzari, uste zelako haurren gorputza oso moldakorra eta malgua denez, hautsezin eta lesiona ezina zela. Gaur egun, ordea, gizartean, oro har, eta batik bat hezkuntzan jabetu dira haurtzarotik postura zuzenak eta ergonomikoak, ohitura osasungarriak bultzatzea ezinbestekoa dela haurren garapen integral eta bereziki motore egoki baterako.

Haurtzaroa oso garai egokia da gorputza behar bezala ezagutzen eta ezten irakasteko. Batetik, zenbat eta azkarrago identifikatu arazoa orduan eta aukera eta erraztasun gehiago izango ditugulako konpontzeko. Eta bestetik, haurrak ikastetxean denbora asko pasatzen duenez, garrantzitsua delako eskolan gai hauek lantzea irakasle eta



**Garikoitz LOPEZ DE MUNAIN**  
FISIOTERAPEUTA

gurasoen elkarlanaren bitartez edota zeharka, fisioterapeuta, psikomotrizista... baten laguntzarekin.

Adituen arabera, eskola garaian haurrek izaten dituzten postura arazo

nabarmenenak bizkar hezurreko arazoak dira. Besteak beste, honako lesioen ondorioz sortuak: %24,9 bikien uzkurketagatik; %18,7 hiperlordosi lumbarragatik; %9,3 eskoliosi estrukturtuagatik; %6,4 hiperkifosiagatik. Lesio horiek edo eta desoreka horiek denbora luzean izanez gero, eta ohitura bihurtu, luzera begira arazo larriak ekar ditzakete bizkar hezurrean, posturan eta geroko bizitza kalitatean.

Artikulu honetan haurren eguneroko lagun den motxilaz hitz egingo dugu. Izan ere, egoki erabiltzen ez bada, kaltegarri izan daiteke haurren gorputz garapenean.

Nagusiki bi motxila mota erabili ohi da: bizkarrekoa eta gurpilduna. Jarraian datozen lerrootan bata zein bestea egoki erabiltzeko zenbait gomendio emango ditugu:





### Bizkarreko motxila

- Motxilan eramandako pisua ez da inoiz haurraren pisuaren %10 baino gehiago izan behar. Horrekin lotuta, gomendantzen da garraiatzea egunean erabiliko duguna soilik.

- Motxilan daramaten pisua ekitati-boki banatuta egon behar da bi sorbaldeen artean. Horrez gain, haurrari zuzen ibiltzeko aukera eman behar dio, bere burua motxilan pausatu gabe eta balantzaka edo kulunka ibili gabe.

- Motxila barruan, objekturik pisutsuenak gorputzetik ahal den gertuen kokatuko ditugu.

- Motxila gorputzera itsatsita joan behar da eta ez da izan behar haurraren bizkarra baino handiagoa. Adituen arabera, ez litzateke gune lunbarra baino beherago iritsi beharko.

- Motxilaren uhalak zabalak eta biguingarriak izan behar dira. Uhalak

estuak eta gogorrak badira, haurrak arazoak izan ditzake odol zirkulazioan eta nerbio sisteman, nerbioen konpresioa jarraitua bada.

- Gomendagarria da motxilak sabelaldean ere uhal biguingarri bat izatea; horrela, motxilaren pisua gihar multzo gehiagoren artean banatzen baita.

- Motxila altxatzerakoan, oso garrantzitsua da bizkarra zuzen izatea eta belaunak tolestea. Gorputz enbor eta izterren arteko angelua 90 gradukoa izan behar da, baita izter eta bernen artekoa ere. Halaber, pisua gorputzetik ahalik eta gertuen (bai horizontalean zein bertikalean) egon behar da; horrela, askoz ere indar gutxiago egin beharko dugu eta lesionatzeko aukera askoz gutxiago izango ditugu.

### Gurpildun motxila

- Heldulekua altuera ezberdinetara egokitu daitekeena izan behar da, garraioa ergonomikoagoa izan dadin. Horrela, haurrak motxila hartzeko ez du makurtu beharrik izango.

- Motxila gure atzean eramango dugu eta ez gorputzetik distantzia handira. Gorputzetik zenbat eta gertuago izan orduan eta erosoago izango da garraioa.

- Komenigarria da motxila eramaterakoan, tarteka, eskuz aldatzea.

**Motxila altxatzerakoan, oso garrantzitsua da bizkarra zuzen izatea eta belaunak tolestea. Halaber, pisua gorputzetik ahalik eta gertuen (bai horizontalean zein bertikalean) egon behar da; horrela, askoz ere indar gutxiago egin beharko dugu eta lesionatzeko aukera askoz gutxiago izango ditugu.**



**Jendartean, oro har, eta batik bat, hezkuntzan jabetu dira haurtzarotik postura zuzenak eta**

**ergonomikoak, ohitura osasungarriak bultzatzea, ezinbestekoa dela haurraren**

**garapen integral eta bereziki motore egoki baterako.**



# bilakatu z



## Narratibak Hezkuntzan erakusketa

Hezkuntzari so egiten dion begirada berpentsatzearen, Lugaritz Kultur Etxean, ikus eta arte istorio batzuen erakusketa aurkezten da maiatz osoan zehar. Proiektu honek, irakaslearen prestakuntzan garatzen ari den lana eta bere hedapena beste esparru batzuekin lotzen ditu.

Erakusketaren abiapuntua ikaskuntza-irakaskuntza eszenatokiak zabaltzea da, unibertsitatea eta komunitatearen arteko kolaborazioaren bidez bisitariari ikaskuntzarako beste alternatibak imajinatzeko aukera eskainiz.

Donostiako Magisteritza Eskolatik eta etorkizuneko irakasleen formatzaile gisa, hezkuntza konpromiso sozial bezala ulertzen dugu. Konpromiso honek zabaltzera behartzen gaitu eta aldi berean besteak gugana hurbiltzera. Unibertsitatean hezitzen dugu, bai, baina unibertsitatea esperimintazio zentro gisa ulertuz.

### EGITARAUA

**Maiatzak 5 (osteguna):** 16:00-19:00, Jardunaldi-ilustrazio tailerra. Myriam Cameros Sierra, "La cenicienta que no quería comer perdices". Bete arte. Donostiako Magisteritza Eskolako (EHU/UPV) 0.4 gelan.

**Maiatzak 5 (osteguna):** 19:30tan erakusketaren inaugurazioa.

**Maiatzak 20 (ostirala):** 10:00-12:30. Haurrentzako tailerrak: Musika eta plastika. Donostiako Magisteritza Eskolako ikasleak (EHU/UPV) - auzoko Ikastetxeak. Erakusketa aretoan.

**Maiatzak 27 (ostirala):** 18:00-20:00. MercaTRUKE: Zer eskaintzen didazu eta zer eraman nahi duzu? Erakusketa aretoan.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

# maiatza berriak

# Udaltop jardunaldiak.

## Euskara, identitatearen oinarri eta osagarri



Zer da euskara euskaraz ez dakitenezat? Gai hori aztertu dute Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen hirugarren topaketan, Lasarte-Orian. “Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletatik?” galderari erantzuna ematen ahalegindu dira topaketan parte hartu duten 180 bat lagun.

Jone Miren Hernandez Antropologian doktorearen ponentziak eman zien hasiera topaketei. *Eta hizkuntza kare-morteroa izango balitz?* Izenburupean, euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa aurkeztu zituen. “Hiztunak, hizkuntza bat due-

nak, testuinguru bat du, bizimodu bat, ikuskera bat, identitate bat. Horren aurrean, zer eskaintzen dio bigarren hizkuntza batek? Zergatik ikasi, zergatik hitz egin, zergatik bizi edo sentitu bigarren (edo hirugarren) hizkuntza bat?” Galdera horien inguruan hausnartzeko asmoz, erdaldun batzuek euskararen inguruan izandako hainbat esperientzia aztertu ditu irakasleak, 60-70eko hamarkadetatik abiatuak. Kontakizun horien bitartez, unean-unean euskararen inguruan sortutako diskurtsoak eta bizipenak aztertu ditu, garai bakoitzean hizkuntza eta identitateen artean eman izan diren loturak irudikatuz. Bere esperientziatik abiatu zen Hernandez ponentzia hau prestatzeko, Lasarte-Orian 1970ean jaio eta euskaldun berria den irakasle baten esperientziatik.

70eko hamarkadatik gaur arte, hiru etapa bereizi ditu: Lehena, 1970 eta 80ko hamarkadak hartzen dituena, Txepetxek euskal soziolinguistikari sarrerara emango zion ikerketa egin zueneko garaia. Bigarrena, 90eko hamarkadako; alfabetatze mugimenduak indarra hartu zueneko, hezkuntza ereduak sartu zireneko, eta euskara za-

baltzeko “sormen handiko ekintzak” egiten hasi zireneko. Hirugarren etaparen 2.000 urtean hasten den hamarkadaz ari da, non euskaldun eta erdaldunen genealogiak aldatu egin diren, eta apenas egongo den familiarik erdaldunik ez duena, edo euskaldunik ez duena. Genealogietan izan den aldaketak ekarri duen aniztasunean erreparatu behar dela dio irakasleak.

Aurrera begira, “futurolgia apur bat eginaz”, gaurko gazteen diskurtsoak eta jokaerak ikusirik, diskurtsoa aldatu beharra ikusten du, “oso diskurtso modernoak daukagu, ez gara batere posmodernoak”, azaldu zuen. “Gaur arte hizkuntza nortasunarekin lotu dugu, baina orain fokoa aldatu beharra daukagu, hiztuna baitago zentroan”. Irakaslearen arabera, euskara dela-eta, azken hamarkadetan izandako aldaketak ezin dira ulertu identitatean erreparatu gabe. “Horregatik, euskaraz atzo eta gaur identitatearen osatze prozesuan duen paperean erreparatu behar da”, eta aurrera begira, ikusten du “euskara identitatea oinarritzeko baino gehiago, euskara identitatea osatzeko” izango dela.

## Alemania, Estonia eta Turkiako eskolak Andoainen bildu dira, mugikortasunaz hitz egiteko

Alemania, Estonia eta Turkiako eskolak eta Alemaniako Arbeit und Leben irakasle-sindikatuak Andoaingo Institutuan bildu dira apirilean, Europarako Leonardo mugikortasun programaren barruan. Bai Batxilergoan eta baita Goi Mailako Zikloan ere ikasleek elkartrukaketak bultzatzea eta hobetzea izan da bilera horien helburua. Prozesuaren buruan gizarte esku-hartzearekin lotuta dauden Lanbide Heziketaren lan praktikak hobeto bidera-

tzeko praktika egokien esku-liburua sortu nahi dute.

Jardunaldiak Tangente GKEk eta Leitzaran Institutuak koordinatuta egin dituzte. Bilerekin gain, jardunaldietako parte-hartzaileek zenbait bisita praktikoko egin dituzte, besteak beste, Donostiako Ibai ikastolara, bertako haur-hezkuntza lana ezagutzeko, eta Aspacera, garun-perlesia duten afektatuekin egiten ari diren lana ezagutzeko.

Programa honi joan den urtean

Hamburgon eman zitzaion hasiera eta jarraipena Estonian emango diote.



# Seaskak “euskaltzaleen baitaezpadako hitzordu” bilakatu nahi du Herri Urrats



*Laku bat munduan* lelopean egingo dute aurten Herri Urrats festa handia hil honen 8an, Senperen. Iaz, eguraldi txarra medio, helburuak lortzetik oso urrun gelditu zen Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaia, eta Herri Urrats maiatzeko egun euritsu hartan ez zela bukatzen adieraziz, urte guztirako kanpaina egin zuten. Ondorioz jasotako elkartasun horri erantzuten diote aurtengo lelo eta irudiak, “Gutariko bakoitzak sorta bat gira, gure ekarpen tipia bideratuz putzua egingen dugu, horrela tanta gehiago bilduz, aintzira bilakatu arte”.

28. ekitaldi honetan bildutako dirua Xalbador Kanboko ikastetxea berritzeko izango da, handitu beharrean baitago ikastola. Jendea erakarri eta dirua biltzeko, egitarau bete osatu dute, besteak beste, bertsolariak, Patxi eta konpainia, Kukai eta Oinkari dantza taldeak eta Berri Txarrak, Luar Na Lubre, Tapia eta Korrontziren kontzertuak izango dira. Egitarau osoa [www.herriurrats.com](http://www.herriurrats.com)-en dago.

## Irakurmena hobetzeko jardunaldiak, Algortan

Irakurmena hobetzeko estrategiei buruz ariko dira hil honen 18 eta 19an Getxolinguae 2011n, Algortako Tamariresen. Galtzagorri Elkarteko Itziar Zubizarreta eta Nafarroako Unibertsitateko Vicky Zenotz zehazki hizkuntza idaztziaren ulermen estrategiez ariko dira

hitzaldi banatan, eta ondoren, Jesus Grisaleña ISIEI-IVEIko eskola antolatutako zuzendariak irakurmenari loturiko ebaluazio diagnostikoez hitz egingo du. Beste bi hitzaldiak Fernando Trujillo Granadako Unibertsitateko irakasleak eta Javier Garcia Arza eta Sergio

Gonzalezek emango dituzte; bigarren goek Irakurketa Gaitasunak Hobetzeko Nafarroako plana aurkeztuko dute. Jardunaldiak lan taldeekin amaituko dituzte. Jardunaldietan izena emateko epea hilaren 9an itxiko da (<http://getxolinguae2011.wordpress.com>).

## Hezkuntzari begiratzeko moduez hausnartzeko tailerrak eta erakusketa egingo dituzte Donostian

Hezkuntzari so egiten dion begirada berpentsatzeko helburuarekin, ikus eta arte istorio batzuen erakusketa izango da ikusgai hilabete osoan Donostiako Lugaritz Kultur Etxean. Elkarrikertuz hezkuntza-berrikuntza taldearen proiektu honek, irakaslearen prestakuntzan garatzen ari den lana eta bere hedapena beste esparru batzuekin lotu nahi du.

Erakusketaren abiapuntua ikaskuntza-irakaskuntza eszenatokiak zabaltea da, unibertsitatea eta komunitatearen arteko kolaborazioaren bidez

bisitariari ikaskuntzarako beste alternatiba batzuk imajinatuzko aukera eskainiz.

Erakusketarekin batera, jardunaldiak eta tailerrak egingo dira hilabete osoan zehar, bai haurrei zuzenduriko tailerrak eta baita helduei zuzendurikoak ere. [www.elkarrikertuz.es](http://www.elkarrikertuz.es) webgunean dago erakusketari eta jardunaldiei buruzko informazio osoa.

Donostiako Magisteritza Eskolatik eta etorkizuneko irakasleen formatzailerak gisa, konpromiso sozial gisa ulertzen du Elkarrikertuzek hezkuntza.





**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...**

**>>> Uste al duzu krisi ekonomikoa eragiten ari dela hezkuntzan? Nola?**

**> Baliabide murrizketa nabarmena**

Hezkuntzan gabiltzanok ongi dakigu zer murrizketak iritsi diren gure zentroetara. Oro har, era guztietako murrizketak baldin badaude ere, murrizketa ekonomikoa da nabarmena eta horrek beste guztia baldintzatzen du: soldaten murrizketa, langileen eta ordezkapenen gutxitzea, prestakuntza arloan eta abarrear.

Une honetan, geldialdiak egiten ari dira EAEko Partzuergoko langileak, sukaldeko langileak eta abar. Horrek, bere eragin kaltegarria du hezkuntzako garapenean, nola ez. *Miren K.*

**> Baliabide eskasia**

Langile murrizketagatik greba aldarrikatzen ari dira Seaskako langileak. Krisi ekonomikoak edonon eragiten du, eta ikastletan, batez ere! Askotan, susmagarria da sektore beretsuetan eragiten duela ikustea, eta dena "Krisi" baten eragina omen da. Agintariak krisia dute beti batzuentzat, ez al da? *Manex*

**> Koherentzia eza**

Hezkuntzaren garrantziaz edonon entzun liteke. Jardunaldi, biltzar, foro eta abarretan, edonori entzuten zaio esaten aldaketa garaiotan heziketak izugarrizko garrantzia duela eta abar. Jendarte berria sortzen ari dela, aldaketa ugari gertatzen ari direla eta etorkizunekoak, pertsona prestatuak eta buru malgua dutenak izan behar direla. Gero, aldiz, erabakia hartzerako unean, banku eta konstruktoreen interesak nagusitzen dira. Jendartearen antolaketan aldaketa sakona gertatu behar da gutxi batzuen interesak baino, herritarren interesa nagusitzeko. *Manex*

**> Kaka eginda gaude**

Zer gerta daitekeen ez jakiteak, segurtasun ezak, langileon eskubideen aurkako neurri legalak, grebak, gure inguruan dagoen egoera ekonomiko kaxkarrak eta abarrek beldurra sortzen dute, nola ez! Egoera normalean onartuko ez genituenak lasai asko, edo ezinbestez, onartzen ditugu, menpekotasuna IZUgarria delarik. Hezkuntzan ere, bere eragina du krisiak, eta sakonena dena, babilioen krisia da. Hobeto esanda, gizarte hobeak egiteko balio ez duten balioen nagusitasuna. *Marta T.*

**Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> Eusko Jaurlaritzak haurtzaroren eta nerabezaroren behar eta eskariak ikerketa egin berri du. Ikerketaren ondorioen artean, hauek azaldu dira prentsan: "Nerabeek guapo egon nahi dute besteen onarpena jasotzeko", "Euskal gazteek haien irudi fisikoa zaintzen dute irainen eta bazterkeriaren berdur" eta "Etorkinak bazterketa sozialarekin lotzen dituzte haur eta nerabeek". Zure inguruko ikasleek edo haurrek horrelako lehentasunak dituztela uste al duzu?**

**Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Ezin dut, eta zer?

Uxue Alberdi  
ELKAR

Aita alabari esan eta esan ari zaio *super-neska* bat dela. Baina alabak badauki ez dela egia, *super-neskek* hegan egiten baitute, eta berak ez daki hegan. Saiatu da bere indar guztiekin, aitari ez huts egiteko, baina ezin du. Eta orduan ikasiko du liburuiko protagonistak esaten, "ezin dut, eta zer?". Uxue Alberdi-  
ren idazlana Jokin Mitxelenak ilustratu du. •



## Sexualitatean xirikatuz

Maider Garcia de Vicuña-Iratxe  
Porras  
EREIN


Sexualitatea modu zabalean ulertaraztea da liburu honen xedea, sexualitatearen aniztasuna ulertzea eta onartzea. Abiapuntuan *Xirika* aldizkarian Emaize sexologia zentroak astero-astero idazten zituen artikulua daude. Liburuak haur eta gaztetxoekin erabiltzeko gida bat osatu dute eta [www.emai-ze.com](http://www.emai-ze.com)-en dago eskura. •



## 5 hartz jostari

Krestin M. Shuld  
TTARTTALO

1etik 5era zenbatzen ikasteko eta ukimena lantzeko liburu dibertigarria da *5 hartz jostari*. Pozik bizi diren bost hartzen istoriotxoak kontatzen die txikienei, eta egun batean guztien artean festa bat egitea erabakiko dute hartzek. Krestin M. Shuldek idatzitako liburua Sabine Cunoren ilustrazioek osatzen dute. Munduko hamaika hizkuntzatarata itzulia dago liburua. •



## Amaren urteak

Yolanda Arrieta  
AIZKORRI


6 eta 8 urte bitarteko haurrentzako liburua da Arrieta idatzi eta Aitziber Alonsok ilustratu duena. Mireiak eta Malenek inbidia pixka bat diote elkarri, nahiz eta elkarrekin marraztea atsegin. Mikelek bakarrik marrazten du. Egund batean, ordea, Mireiak, Malenek eta Mikelek hiru irudiak elkartu eta opari bakararra asmatzen dute, gauza bat baitute hirurena dena: mendi-lerroen M-a. •



## Euskal Herriko alegia, ipuin eta kondairak

Luis Barandiaran  
TXERTOIA

Anbotoko Damak, lamiek eta jentilek dute aterpe liburuan, eta baita ama birjina eta santu kristau batzuek ere. Paganismoaren eta kristautasunaren arteko nahasketa da testu hauen ezaugarrietako bat. Joxe Migel Barandiaranek bildu zituen kondairak modu dibulgatiboan dakartza liburu honek. •



## Poloetako animaliak

Phyllis Perry  
TTARTTALO

Zirkulu Artikoa eta Antartika esploratzera gonbidatzen ditu haurrak lan honek. Izotzaren eremua eta han bizi diren zortzi animalia harrigarri aurkezten dizkie txikienei, hartz zuria, orka hiltzailea eta narbal bitxia, tartean. Poloetako animalia horiek muntatu ditzakete haurrek liburuak dakartzan piezekin. •

# ... nora joango gara?

## D'elikatuz

### Elikadura eta gastronomiaren interpretazio zentroa

**Karbohidratoak, gantzak, proteinak... ohiko hitz bihurtzen dira Ordiziako D'elikatuz zentroa bisita egiten duten haurrentzat. Elikadurari eta gastronomiari eskainitako interpretazio zentroan elikagaiak ezagutzen dituzte bisitariak, dastamenaren ikuspegitik batetik, baina baita osasunaren aldetik ere, dieta orekatuak egiten ikasiz.**

Ordiziako erdigune historikoko Barrena jauregian dago kokatua D'elikatuz interpretazio zentroa, eta lau solairutan, oso modu grafikoa eta interaktiboan elikaduraren munduan barneratzen ditu haur zein helduak.

Elikadura osasuntsua lantzen ari dira Ordiziako Jakintza ikastolako haurrek D'elikatuz zentroan, HikHasik bisitatu duen egunean. Idoia Noain gidatutako nutrizionistak egin digu harrera, eta berearekin murgilduko gara elikaduraren munduan barrena. Ikasleek dagoeneko argi dute zer diren karbohidratoak, gantzak eta proteinak, lehendik ere bisitatu baitute zentroa. Iragan asteazkenean Ordiziako azokatik buelta ere eman zuten ikasleek, eta menu osasuntsu bat egin ahal izateko produktuak erosi zituzten han, ekoizleen eskutik beretik, baserriarrek, nekazariak eta abeltzainekin hitz eginaz. Jarduera hauen helburua haurrek elikadura ezagutu eta baloratzea da; jaki ezberdinen



ezaugarriak, ekoizpena eta merkaturatzea lantzea, eta jaki-taldeak eta elikadura-ohitura osasuntsuak ezagutzea.

Gaurkoan ere elikadura osasuntsua lantzen ari dira bosgarren mailako ikasleak, taldeka banatuta, jardueren zati bat zentroan bertan osatuko dute eta ondoren Ordiziako kaleetara irtengo dira haurrek, herritarrekin elikadurari eta kontsumo-ohiturei buruzko inkestak osatzeko. Motibaturik dabilta ikasleak elikadura-piramideari begira menu osasuntsu bat prestatzen. Gure osasunerako eta gorputzaren funtzionamendu egokirako elikaduraren garrantziaz jabetzen ari dira haurrek, eta dieta orekatu baterako oinarritzko irizpideez jabetzen ari dira jolasten ari diren bitartean, zehazki, gorputz baten energia beharrez ari dira hausnartzen Noain nutrizionistaren laguntzaz.

### Adin guztietarako jarduerak

D'elikatuz zentroak bisitak eta bisitatu gidatuak eskaintzen ditu, baina harago, bederatzi unitate didaktiko dituzte prestatuak adin ezberdinetako ikasleekin jorrazeko osasuna, elikadura eta kontsumo jasangarriaren inguruko gaiak. Unitate horiek aurrez ikastetxean bertan jorra ditzakete irakasleek, edota ondoren zentroan bertan. Bisitarren ondoren eskolan elikaduraren gaia jorratzen jarraitzeko ere bidaltzen dituzte unitate didaktikoak Ordiziatik. Horrez gain, Ordiziako azoka ezagunera bisitatu gidatua egin dezakete ikasle-irakasleek, eta baita gaztagintzan jarduten duten baserri batera bisitatu, edota ogigintza edo fruitugintza naturala egiten duen baserri batera, eta tailerren parte hartzeko aukera ere badute.

Jarduerak hitzaldiekin osatuko di-





tuzte Jakintzako ikasleek, euren gurasoei zuzenduriko bi hitzaldi eskainiko baitizkie Idoia Noainek, ikastetxearen eskariaren arabera eskaintza egiten baitu interpretazio zentroak.

## Azokaz eta gastronomiaz

Elikadura-piramidea; menu osasuntsu eta ez hain osasuntsuak osatzeko aukera ematen duen *self service*-a; norberaren genero, pisu eta altueraren arabera energia beharrak adierazten dituen makina eta beste hamaika ariketa eskaintzen ditu elikadura eta nutrizioari eskaintako bigarren solairu honetan. Hurrengo solairua, hirugarrena, gastronomiari eskaintako solairua da, eta bertan hainbat ikus-entzunezko daude: batetik, Ordiziako azokari buruzkoa, non Erdi Aroko garaietatik laurhun urteko errebaso historikoa egiteaz gain, azokak kontsumo ohituretan nahiz jendearen sozializazioan duen eta izan duen garrantziaren berri ematen du. Ondoa Idiazabalgo gaztari eskaintako txokoa dago, nola ez.

Bat-batean, solairu berean, Karlos Argiñano eta Isaak Salaberria hasi dira hizketan. Gastronomiari buruzko elkarriketan ari dira Ramon Roteta eta Juan Mari Arzakekin batera, oso ikus-entzunezko bitxi eta modernoetan. Garai bateko sukaldaritzaz, gastronomia zer den eta zer izan beharko lukeen ari dira azaltzen, eta baita euskal sukaldaritzaren etorkizuneko apustuez ere.

D'elikatuz zentroan bertan hainbat jarduera osagarri daude, elikaduraren zuzenki lotuak ez daudenak. Batetik, lehen pisuan Goierriko herri guztiei buruzko erakusketa dago. Maketa, diaporama, benetako material eta argazkien bidez Horrez gain, aldiari aldiko erakusketak ikus daitezke beheko solairuan, oraingoan naturarekin loturiko Elkarrekin argazki-erakusketa ikus liteke. ●

## D'ELIKATUZ INTEPRETAZIO ZENTROA

Ordizia (Gipuzkoa)

Tel.: 943 88 22 90

e-maila: [delikatuz@ordizia.org](mailto:delikatuz@ordizia.org)

Webgunea: [www.delikatuz.com](http://www.delikatuz.com)



### INGURUMENEO PROGRAMAK:

#### Hezkuntza unitateen lan-prozedura

1. Aldez aurretik: Bisita aurretik gaia ikastetxean bertan landu ahal izateko materiala bidaliko da (unitate batzuetan).
2. Zentroan bertan: Zentroa ezagutu eta edukiak landuko dira zentroko baliabide, material eta ekintza ezberdinen bidez (90' edo 180'-ko saioak).
3. Ondoren: Gaia lantzen jarraitzeko ikastetxera materiala bidaliko da (unitate batzuetan).
4. Ekintza osagarria zentrotik kanpo (hautazkoa): Ordiziako Feria, gaztagintza, baseri ezberdinak eta bertako jarduerak, etab. ezagutzeko aukera eskainiko da.

#### Prezioak:

- "Baserritik platerara", "D'elikatuz mokau batean" eta "Goierri ezagutzuz" (90' inguruko saioak): 1,5 euro ikasleko.
- Goiza D'elikatuzen unitate didaktikoak landuz (3 ordu inguruko saioak): 3 euro ikasleko.
- "Azoka mokau batean": 4 euro ikasleko.
- D'elikatuzera bisita unitate didaktikoak landuz + ekintza osagarria (egun osoko saioa): 5 euro ikasleko inguru, aukeraturiko ekintzaren arabera.



# atzeko atetik



**Matxalen BILBAO**


DANTZARIA, KOREOGRAFOA ETA DANTZA IRAKASLEA

Nik Bermeoko eskolan ikasi nuen. Garai hartan nazionalak deitzen zioten. Esan beharra daukat Franco ni 8. mailan nengoenean hil zela, eta gauzak oraindik ez zirela gaurko moduan. Adibidez, neskak eta mutilak banatuta geunden, ez genuen euskaraz ikasten, erdaraz soilik....

Eskola hiru eraikinetan banatzen zen. Oraindik ez zegoen eskola berria egina. 7. mailan nengoenean estreinatuta genuen gaur egungo eskola berria. Niri gehien gustatu zitzaidana gimnasioa edukitzea izan zen. Inoiz ez nuen horrelako lekurik ikusi. Izugarria zen!

Garai hartan oso zorionsua izan nintzen eskolan. Eskolara joatea atsegin nuen. Han ezagutu nituen nire lehe-

## Eskolako oroitzapen batzuk



nengo lagunak, txikitako lagunak. Nahiz eta orain ez dugun elkar ikusten, betiko lagunak dira.

Eskolaurretik 8. mailaraino ibili nintzen bertan. 9 urtetan oso maistra onak izan nituen, baina gehienbat Conchi irakaslearekin oroitzen naiz. 4 urtetan izan zen gure maistra eta tutorea. Guztiontzat haize berria ekarri zuen, oso gaztea eta erakusteko gogo handiekin etorri baitzen. Niretzat benetako maistra bat zen, oso ona, ikasten eragiten zekielako. Harekin aurkitu nuen nire alderdi artistikoa. Gogoratzen dut arratsaldeetan askotariko jarduerak egiten genituela, denetik: antzerkia, korua, koreografiak... Goizez ikasi egiten ge-

nuen, eta arratsaldeez, gozatu.

Beste aldetik, atsegin nuen ikasleon arteko aniztasuna. Hori ere asko esker-tzen dut. Eskola oso plurala zen, gizartea bezala. Uste dut hezkuntza ona hartu nuela, batez ere balioen inguruko gaietan.

Geroago, Irakasle ikasketak ikasi bitartean, nire eskolara itzuli nintzen praktikak egitera. Oso polita izan zen berriro toki berean baina beste egoera batean egotea.

Orain dantza munduan nabil, dantza eskolak ematen eta koreografiak egiten. ●



“Sortzen jakitea, hartzen jakitea bezain ona da azken finean”.

Imanol Urbiet

# 2011-12 ikasturterako

## 8. baliabide pedagogikoen **GIDA**

prestatzen ari gara.

# hik hasi

**EUSKAL HERRIKO  
BALIABIDE  
PEDAGOGIKOEN 7.**



2009ko udazkena

[gida@hikhasi.com](mailto:gida@hikhasi.com)

Informazioa: 943 371 408

Donostian  
Uztailak 4, 5 eta 6

udako topaketak 2011



hh  
hik hasi

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

UPV EHU  
Hezkuntzaren Teoria  
eta Historia Saila

## XII. HIK HASI Udako Topaketak

Donostian, uztailak 4, 5 eta 6

**Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 31**

Hezkuntzaren etorkizunaz, **Euskara proben eraikuntza**, **Adimena nola eta norantz gidatu ikasten**, **Garapenerako Hezkuntza**, **Adimen emozionala**, **Psikomotrizitatea 2-3 urtekoekin**, **Sexuen hezkuntza**, **Maskaragintza**, **Berrikuntza Haur Hezkuntzan sentikortasunaren bidez**, **Jendaurrean hitz egiten**, **Ahotsaren erabilera egokia**, **Lumatik ahora**, **ipuinak egokitzen**, **Konpetentzia matematikoa**, **Autismoa**, **Orkestra musikaterapeutikoak**, **Osasun mentala**, **Haurrentzako masajea**, **Elikadura eta eskola**, **Idazmena lantzen: ekoizpena eta sormena**, **Familia eta irakasleria**, **Ez dut zigortu nahi**, **Dibortzioa eta eskola**, **O Happy Day!**  
Zertan jolastuko gara?, **Jai ospakizunetan dantzan**, **Antzerkigintza**, **Yoga saioak irakasleentzat**, **Coaching**, **Sare sozialak**, **nerabeak eta hizkuntza(k)**, **IRRIAK atera argazki eta bideoei**, **GIMP: irudiak tratatzeko**, **Irakaskuntza 2.0**, **Web 2.0. Google**, **Bideoa...**

**Informazioa: [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) edo 943 371 408**